

"Bertso mundua jende oso
parte hartzaileaz osatutako
komunitate bat da" / 2-3



Osasun publiko duin baten eske

Urtearekin batera Altsasuko osasun etxe parera
kontzentrazioak bueltatu dira / 13



**Aralarko guardetxe
proiektu berria
Nafarroako Gobernua
noiz gauzatuko
zain dago** / 7

**Dorraon Nilsa
enpresa publikoak
egindako araztegia
lanean dago
dagoeneko** / 11

**Naroa Otxoa
etxarriarrak
Sakanako Pala
txapela desiratua
jantzi zuen** / 15

**Estatu osotik
etorritako 64 bikotek
hartu zuten parte
Irurtzungo Frontenis
Txapelketan** / 16

**Ekiñe Fernandez
altsasuarraren
proiektu bat
nazioarteko moda
aldizkarietan** / 23

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Abenduaren 18an bertsolari-tzaren zita nagusia izan zen Iruñeko Nafarroa Arenan: Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala. Maialen Lujanbiok jantzi zuen txapela eta puntuak eman zituzten epaileen artean sakandar bat zegoen: Joseba Beltza Bengoetxea etxarriarra. Duela 25 urte inguru bertso eskolan hasi eta gutxira mikroaren aurrean bertsoan aritzeko gogoia zuela esan du, eta ordutik bertsolari-tzaren munduan murgildu da alor desberdinak jorratuz. Txapelketa Nagusian epaile izatea esperientzia interesgarria eta intentsoa izan dela aitortu du. Ardura handia dute, baina protagonistak bertsolariak direla esan du.

Noiz hasi zinen bertso gintzarekin harremanetan?

Esango nuke lehendabiziko aldiz bertsoekin harremana ikastolan izan nuela, bertsolari-tza klaseak geneuzkalako. Bertso munduan sartzeko oso garrantzitsua izan zen 1997ko, orain dela 25 urte pasatxoko, Bertso Txapelketa Nagusiko finala. Final horren aurretik gogoratzen naiz Eneko Lazkoz *Boli*-rekin aritu nintzela txapelketari buruz pixka bat hitz egiten eta berak komentatu zizkidan zenbait bertsolari; futbol entrenamendu batetik bueltan Irazu eta abar aipatu zizkidan. Osaba eta lagun batekin 97ko final hura aditze-ra joan ginen, eta horren ondoren bertso eskolan sartu nintzen. Gaur arte.

Norekin egon zinen bertso eskolan? Zein zegoen garai hartan?

Garai hartan Manu Gomez eta Josema Leitza zebiltzaten. Biekin hasi ginen. Josema Leitza-rekin luze egon gara batez ere Boli eta ni. Oso gogotsu hasi ginen. Gero etorri ziren Unai Artieda, Saats Karasatorre eta beste gazteago batzuk.

Bertso eskolak garrantzitsuak dira?

Beti esaten da, baina eskolak sortzearekin transmisioa sortzen da eta horrek bere garrantzia izan zuen eta inguru batzuetan oraindik bada. Hain bertsozale ez diren lekutara iristeko, baita bertsozale diren lekuetan ere, kasu askotan bertso eskolek transmisio funtzio oso garrantzitsu hori betetzen dute. Bertso mundua osatzeko, handitzeko eta sartzeko lana ere egiten

"Epaitzean baloratzen dut entzule bezala aditzen dudana"

JOSEBA BELTZA BENGOTXEA BERTSO EPAILEA

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurreko faseko lau saioan eta finalean epaile izan da etxarriarra; "ardura" handiko lana

dute. Ezinbestekoak direla, segurua.

Beraz, hor dago gakoa?

Bertsoarekin kontaktu bat da. Gakoetako bat da. Kontuan hartu behar da bertso eskoletan jendea ongi pasatzeko apuntatzen dela. Ikastetxetan ere lan pila bat egiten da. Ikastetxeak daukana da nahi edo nahi ez izan jasoko duzula saio hori; bertso eskolak aukeratu egiten dituzu. Eskolaz kanpoko beste jarduerekin konparatuta bertso eskola aukeratuago izaten da.

Zenbat denbora pasatzen da bertso eskolan hasi eta mikrofono baten aurrean kantatzeraino?

Asmo polita egoten da eta askotan beteko da bertso eskoletan parte hartzen duten guztiak mikrofono aurrera ez bideratzeko. Esaten dut polita dela bertsoan aritu zaitezkelako mikrofono aurrean jarri gabe, eta horretan ari dira. Baina gure kasuan, eta nirean zehazki, bertso eskolan hasi eta jende aurrean jartzea oso tarte txikiko kontua izan zen. Gogoia baneukan horretarako, nik bezala orduan geunden taldeko guztiok. Hilabeteko gaua izango zen.

Lehendabiziko plazaz gogoratzen zara?

Plaza, ez. Eskolartekoetan parte hartzen ere azkar xamar hasi nintzen, 1998an edo 1999an. Lehenago bertsolari saioaren bat zegoela aprobeztatuta haien ondoan agertu eta mikrofonoa hartuta

bertsoren bat kantatzen genuen. Hori bertso eskolan hasi eta gutxira. Inprobisazioa zen, baina agian afari guztia horretan pentsatzen pasatzen nuen.

Bertsolari txapelketetan parte hartu duzu? Gogoan daukazazu?

Bai. Uste dut 2001ean hasiko nintzela eta 2006ra arte egon nintzen. Gero berriz itzuli nintzen, ez dakit zehazki zer urtetan, 2015 inguruan, eta orduko hartan berriz ere motibatu nintzen eta txapelketa oso desastrosa egin nuen saio bakarrean nahi ez nituenak eginda. Hori izan zen nire txapelketako ibilbidea.

Gaur egun bertso eskoletan jarraitzen duzu?

Oraingoari ez dakit bertso eskola deitu ahal zaion, baina bertsolarako gelditzen gara. Lagunak txapelketan aritu behar direla eta entrenatzeko aitzakiarekin elkartzen gara. Azken urteetan txapelketa dezente tokatu zaie Saatsi eta Boliri batez ere, eta orduan horren bueltan elkartu izan naiz agian gehiago gaiak jartzeko. Beste batzuk ere animatzen dira eta etorri izan dira gureru eta gu ere mugitu izan gara beste tokietara.

Irurtzen ere beste talde bat dago, ezta?

Bai, nahiko talde polita egin dute eta hura antolatuagoa da gurea baino. Gurea lagunarteko zerbait da, telefono dei pare batekin antolatzen dena.

Gai jartzaile lanetan ere ibili zara. Zer mundu da hori?

Niretako gaiak jartzea oso konplikatu da. Buruhauste handiak sortzen dituen lana dela iruditzen zait. Egin daiteke oso azkar, baina azkar eta ongi niri ez zaizkit gaiak ateratzen. Askotan kontrastatu behar da gaia eta taldean egitea komeni izaten da. Gai horiek zer esan eman behar die bertsolariari, aldi berean, interesgarriak izan behar dira eta bertso saioaren araberakoak izan behar dira: zer tonuko gaiak ari zaren jartzen, entretenimendua sortu behar delako... Txapelketa oso pareko gaiak izan behar dira eta ezin duzu bertsolari bat zer esan handiarekin eta beste bat gutxiagoarekin utzi. Hori guztia kontuan hartzea, gaiak ez errepikatzea eta abar lan oso handia da. Txapelketetan tartean zerbait eta noizbait agian errepikatzen da eta normala da. Hoberena da txapelketetan gaiak jartzen ari-tzen direnak oso talde sendoa osatzen dutela eta beti memoria eta ibilbide handiko gai jartzaileak egoten dira eta gogoratzen dira. Horri eskerrak ez da hainbestetan pasatzen.

Gai jartzaile jarraitzen duzu?

Segitzen dut. Otsailean saio bat egingo da Etxarrin eta ez dakit nork egingo duen aurkezle lana, baina gaiak pentsatzen ari gara. **Bertso eskolak, bertsolariak, gai jartzaileak, epaileak... Zer mundu da bertsolari-tzarena?**

Antolatzaileak ere badaude mundu horren barruan; dena lotzen daudenak, komunikabideak eta abar. Nik uste dut bertso mundua jende oso parte hartzaileaz osatutako komunitate bat dela. Orduan, komunitate sendo eta trinkoa da. Horrek ekartzen du egin behar diren lan horiek guztiak egin ahal izatea.

Militantzia ere badu.

Bai, biak uztartzen ditu Bertsozale Elkartek. Badauzka horretan lan egiten duen jendea eta badauzka militanteak eta parte hartzeko prest daudenak. **Nola eman zenuen salto epaile lanetara?**

Bertso munduan orain dela urte dezentetik nagoenez eta Nafarroan elkar ezagutzen garenez, Arkaitz Goikoetxea bertsolari, epaile eta Lekunberriko bertso eskolako irakaslea izandakoa, ni ere Lekunberri irakasle izan nintzen, etorri zitzaidan galdezka ea epaile hasiko nin-

"BERTSOLARITZAN SARTZEKO OSO GARRANTZITSUA IZAN ZEN 1997KO FINALA"

"BERTSO MUNDUA OSATZEKO ETA SARETZEKO LANA EGITEN DUTE BERTSO ESKOLEK"

"BERTSO ESKOLAN HASI ETA OSO TARTE TXIKIAN HARTU NUEN MIKROA, GOGOA NEUKAN"

"BERDIN EPAITU BEHARKO LITZATEKE HERRI TXIKI BATEKO SARIKETA EDO TXAPELKETA"

tzatekeen. Aurretik gai jartzailer taldetan aritu nintzen eta ekarpena egiteko prest gaudenez, talde horretan parte hartzeko prest nengoen eta aurrera egin nuen.

Zerbait ikasi behar da? Zer formazio behar da?

Prestutasuna garrantzitsua da, baina ez da bakarrik hori. Formazioa behar da. Antolaturik dago; Euskal Herriko txapelketaren kasuan forma jakin bat eman zaio azken urteetan. Nafarroaren kasuan talde txikiagoa da, baina talde txiki horrek nahiko ongi funtzionatzen du eta bere plangintza propioa egiten du formazioa jasotzeko. Oso inportantea da eta nahiko ongi funtzionatzen duen arloa da.

Zer epaitzen da?

Berdin berdin epaitu beharko litzateke herri txiki bateko sariketa izan edo Euskal Herriko Txapelketaren finala. Egia da finalerako zenbait irizpide adosten eta zehazten direla eta irizpide horietako batzuk, adibidez, denborari dagokion irizpidea herri txiki bateko sariketa batean eta zer adineko bertsolariek parte hartzen duten agian ez duzula betetzen. Bestela, kontuan hartzen diren gaiak berberak dira batean zein bestean. Epailen batzuek elkartuta zenbait irizpide jartzen dituzte txapelketa aitzaki hartuta eta horren bueltan epaitzen ditugu gainerako saio guztiak.

Irizpide horiek entzuleei iristen zaizkie? Bertsolariei?

Epai irizpideak publikoak dira eta bertsolaria txapelketa batera joaten badira komeni zaie irakurtzea. Batzuk irakurtzen dituzte eta beste batzuek ez. Beraien erabakia da. Google-n bertso txapelketako epai irizpideak sartuz zuzenean sartuko zara horietan. Entzuleek epaitzeko bere iritzi propio sortzeko daukan modutik ez da hain desberdina epaitzeko daukagun modua. Azken finean, epaitzen ari garelako entzule gisa ailegatzeko zaigun hori. Hortaz, diferentzia da epaile batek bada kiela zein den epaitzeko karta eta entzule bat gelditu daiteke zentratuago karta horretako puntu batean eta horrek sor dezake iritzi kontrajarriak egoitea. Ez zait iruditzen hain urruti daudenik batzuk eta besteak. Bertso munduan oso sartuta dagoen jendea eta bertso saio



Joseba Beltza Bengoetxea bertso epaile etxarriarra BELEIXE IRRATIAN.

asko aditu dituenak laguneren artean komentatzen egiten ari direna da guk gero epaitzen egiten saiatzen garena.

Denek daukate ardura bere lanean, baina epaileek goi ardura bat dute?

Ardura bada. Ardura gure esku dago eta beti gutxi batzuen esku egoten da. Adibidez, Euskal Herriko Txapelketan saio bakoitzean zazpina epaile egon gara eta finalean bederatzi. Beti gutxiengo oso txiki bat gara eta guk erabakitzen dugu zer bertsolarik irabazi duen eta zenbat punturekin eta zein gelditu den azkena eta zenbat punturekin. Hortaz, hori ardura handia da. Gu saiatu behar gara guztitik aparte egoten, eta kontuan izan behar dugu protagonistak bertsolaria direla eta gu denok bertsoak aditzera joaten garela. Komeni da gugatik ahalik eta gutxien hitz egitea. Ez dugu mundu guztia kontentu utziko.

Zer nolako esperientzia izan da?

Ona, interesgarria eta intentsua. Finalerdietan, fase batean, lau saiotan eta finalean aritu naiz. Denera bost saiotan. Niretako esperientzia berria izan da, eta horregatik esan nuen baietz. Iruditu zitzaidan momentua izan zitekeela. Bertso mundua beste alde batetik bizitzeko modua izan da.

Erronka gustatu zaizu? Jarraituko duzu?

Bai, segitzeko asmoz. Talde konpromiso batengatik gaude hor eta egia da komeni dela ordezkatzeko sistema moduko bat egoitea eta denborarekin gu ere ordezkatzeko joatea. Baina taldean gustura nago eta segituko dut.

Zer behar du bertso on batek?

Oso kontu etereoa esan behar dut, baina nik uste jendearengana ailegatzeko dela kontua. Bertsoa da, forma estilisti-

"DIFERENTZIA DA EPAILE BATEK EZAGUTZEN DUELA ZEIN DEN EPAITZEKO KARTA"

"SAIATU BEHAR GARA GUZTITIK APARTE EGOTEN; PROTAGONISTAK BERTSOLARIAK DIRA"

koan-edo esanda, sormen eredu nahiko itxi bat, gainera, aldi berean, komunikazioan funtzionatzen du eta komunikazio hori ahalik eta modu indartsuenean ailegatzeko da helburua. Bertso on bat hori dela iruditzen zait. **Beraz, ez da bakarrik bertsolari bat gustura gelditzea.**

Bera gustura gelditu bada, aurrera segi dezala. Baina bertsolaria entzuleak behar ditu izan txapelketa bat edo saio bat. Bertsolari eta entzuleen arteko konexio hori da sortu behar dena.

Eta bertso txarrik bada?

Bai, makina bat bota ditugu. Dudarik gabe, bertso txarrak badira eta nork nahik egin dezake bertso txarra. Kontua da batzuei asko kostatzen zaiela bertso txarrak botatzeko. Badaude zenbait bertsolari eta aurtengo txapelketan aditu ditugun bertsolari horiek guztiak kategoriatu altukoak dira eta oso ongi aritzen dira. Ez dituzte horrelako bertso ikaragarri txarrak botatzen. Hala ere, botatzen dituzte ere.

Epaile izanda eta gauzak barne-barne ikusita, edozein bertso saiotan disfrutatzen duzu?

Bai. Bakarrik epaitzen ari naizenean ari naiz bertsoari zenbakia jartzen eta aldi berean epaitzen ari naizenean baloratzen ari naizena da entzule bezala aditzen ari naizenean baloratzen ari naizena. Orduan, lan oso antzekoa egiten ari naiz. Diferentzia da entzule naizenean despistatzen banaiz ez dela ezer gertatzen. Epaitzeko lanetan oso kontzentratuta egon behar naiz. Baina, bestela, ez dit eragiten eta saioak gozatzen ditut.

Nolakoa da Sakanako bertsolaritza? Giroa dago?

Niri iruditzen zait saretxo bat badagoela eta zenbait lagun bagaudela ibilbide luze xamarra daramagunak bertsoaren munduan. Ez da eskualde bat izugarri bertsolaria dena, baina iruditzen zait egindako lanagatik ez balitz azken hamarkadetakoa giroa nahiko eskasa izango zela. Baina egin den lan horregatik dago mugimendua. Saioak egiten dira, bertsolaria daude, bertso eskolak eta gogo dago, nik hori nabarmen izan dut lagunean artea. Inguruan sustapen lan horretan segitzeko gogo dago. Eta hori ongi dago.



ASTEKOA

AITZIBER CAMPION GANBOA

Konfort eremutik

Konfort eremutik atera behar omen gara. Zer aurkituko dut nik konfort eremu horretatik kanpo? Tentsioa, kontrol eza, estresa, urduritasuna, ziurgabetasuna eta zalantza, adibidez?

Konfort eremuan, aldiz, seguru sentitzen naiz, egin behar dudana menperatzen dut, nire burua ezagutzen dut eta konfiantza daukat egiten dudana horretan. Zergatik demontre utzi beharko dut leku hori bizitzan aurrera egiteko? Benetan da aproposagoa edozer gauza ikasteko deseroso sentitzea?

Nik ere eskuratu nahi ditut gaitasun berriak, nik ere garatu nahi ditut trebetasunak, erronkak gainditu, mugak zabaldu eta hori guztia ahalik eta modu gozagarrienean egin nahi dut; prozesuaren atal bakoitza disfrutatuz.

Pentsa dezagun, bada, konfort eremutik atera beharrean, konfort eremu hori zabaltzen ahal dugula. Hau da, eroso eta seguru sentitzen garen eremua geroz eta handiagoa dela, azken finean, menperatzen ditugun gaitasunak geroz eta ugariagoak eta anitzagoak direla. Eta gure buruan konfiantza izatea, gure adimenaren jabe izatea eta prozesuaz gozatzea sekulako

oinarria dela gauza berriak ikasteko.

Ezagutzak biderkatzeko nahia eta gure burua etengabe garatzeko plazera izan daitezke konfort eremu horren mugak kolpatzen eta mugitzen dituztenak, barrutik kanporantz, gure esentzia mantenduz.

Ezagutzen eta menperatzen

ez ditugun bideak arakatu ditzakegu gure konfort eremutik bertatik sufrimendua helburu bilakatu gabe.

Identifikatu dezagun, beraz, nondik zabaldu nahi dugun gure konfort eremua eta izan dadila erronka nagusia ikasketak beti gozagarriak izatea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



OBJEKTIBOTIK



Iruñeko dantzariak

@duguna

Guk ere atondu dugu gure Olentzero, Urdiaingo dantzarien gisara beztitua.

Orain arte ilun, hemendik aurrera argi!!

#OlentzeroDantzan2022



Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675
GUAIXE



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maquetazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maite Iparragirre Astitz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

BAZKIDEAK



Herrietako aurtengo jai egunak zehaztuta

Herri bakoitzak ordaindu bai baina errekuperatu behar ez den herriko jai eguna izanen du

SAKANA Nafarroako Gobernuak 2023an jai eguna izanen diren egunak honakoak direla erabaki du: ilbeltzaren 6a, apirilaren 6, 7 eta 10a, maiatzaren 1a, garilaren 25a, agorrilaren 15a, lastailaren 12a, azaroaren 1a, eta abenduaren 4, 6, 8 eta 25a. Izaera orokorreko jai egunez aparte udalherri bakoitzak beste jai egun bat, herrikoa, izendatzeko aukera du.

Sakanako 29 herrietako jai egun ofizialak aurtengo honakoak dira: Aizkorbe abenduak 5, Urritzola garilak 4, Irurtzun azaroak 11, Errotz maiatzak 12, Izurdiaga agorrilak 18, Etxeberri irailak 12, Egiarreta lastailak 3, Etxarren ilbeltzak 26, Ekai lastailak 3, Zuhatsu irailak 26, Satrustegi irailak 18, Hiriberri irailak 12, Ihabar abenduak 29, Irañeta agorrilak 29, Uharte Arakil garagarrikak 24, Arruazu garagarrikak 29, Lakuntza ilbeltzak 20, Arbizu garagarrikak 24, Unanu garagarrikak 29, Dorrao agorrilak 16, Lizarraga azaroak 23, Lizarragabengoa garagarrikak 29, Etxarri Aranatz garagarrikak 13, Bakaiku garagarrikak 24, Iturmendi garilak 16, Urdiain garilak 7, Altsasu garagarrikak 29, Olatzagutia garilak 26 eta Ziordia irailak 8.

Garbigune mugikorra hiru egunetan aterako da

Astelehen, astearte eta asteazkenetan ibarreko herrietan geldialdiak egingen ditu birziklatzekoak diren hondakinak jasotzeko. Bestela Sakanako Mankomunitatearen Arbizuko eta Altsasuko garbiguneetara edo Ziordiko ekarpen puntura jo daiteke

SAKANA Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuak jakinarazi duenez, ibarreko herri guztietan geldialdiak egingen dituen garbigune mugikorrak aste honetan ordutegia aldatu du. Orain arte astegun guztietan ibarreko herrietan egoten zen, herri handienetan astean bitan. Sakanako Mankomunitateak azaldu dutenez, "Hondakin Zerbitzuaren inguruko hausnarketa egin dugu, eskaintzen diren zerbitzu guztiak aztertuz. Gure ustez, 20.000 biztanleko populazio baterako Arbizuko eta Altsasuko garbigune finkoekin, Ziordiko ekarpen puntuarekin eta garbigune mugikorra astean hirutan ibiltzearekin zerbitzua bermatuta dago". Gaineratu dutenez, "garbigune mugikorraren ordutegien moldaketaren jarraipena egingen

dugu, aldaketak ekarri duena neurtu eta baloratzeko". Beraz, astelehen hiru egunetan ibiliko da kamioi txikia etxean sortzen diren hondakin birziklagarriak ibarrean barna jasotzen. Garbigune mugikorra honako hondakinak eraman daitezke: sukalde eta motorreko olioak (gehienez 5 litroko plastikoko ontzietan), jostailuak, Cdak, DVDak, VHSak, kaseteak, diskeak, margoak, disolbatzaileak, tonerrak, tinta kartutxoak, pilak, lanparak, bonbilak, fluoreszenteak, erradiografiak edota etxe tresna elektriko txikiak.

Hondakin Zerbitzutik gaztigitu dutenez, "garbigune mugikorrera hondakinak eraman ezin dituztenek Arbizuko eta Altsasuko garbigune finkoetara eraman ditzakete". Bestetik, gogorarazi dute hondakin handiak



Garbigune mugikorra Olatzagutian. ARTXIBOA

(oheak, armairuak, hozkailuak...) etxetik jasotzeko 948 464 867 telefonora hots egin behar dela. Emausko Trapuketariak dohaiarik jasoko dituzte. Bestela, garbigune finkoetara eraman daitezke tamaina handikoak. Azkenik, zerbitzutik ohartarazi dutenez, garbigune mugikorrera edo finkoetara eramanda ere, "hondakinak bereizita ekarri behar dira".

Garbigune mugikorraren egutegia

Eguna	Ordua	Herria
Astelehen	09:00-11:00	Etxarri Aranatz
	11:10-11:35	Iturmendi
	11:40-12:05	Bakaiku
	12:10-12:35	Lizarraga
	12:40-12:55	Dorrao
	13:00-13:15	Unanu
	13:20-13:55	Arbizu
	14:00-14:15	Lizarragabengoa
Astearte	09:00-10:00	Lakuntza
	10:10-10:35	Etxarren Egiarreta Etxeberri
	10:40-11:55	Irurtzun
	12:00-13:15	Aizkorbe Izurdiaga Errotz Urritzola
	13:20-14:20	Uharte Arakil
Asteazkena	09:00-09:40	Urdiain
	09:45-11:40	Altsasu
	11:45-13:15	Olatzagutia
	13:20-13:35	Ziordia
	13:55-14:05	Ihabar
	14:10-14:25	Irañeta
	14:30-14:45	Arruazu

EGUN ON

SAKANA

egunero 10:00etatik aurrera

goizetako konpainiarik hoberena!

107.3 FM

eta GUAIXE.EUS

beleixe

107.3 FM

Tortura ikustarazteko ikerketa lana

Nafarroan 1979 eta 2015 artean tortura edo tratu txarrak salatu dituzten 676 pertsona identifikatu dituzte, eta 825 kasu izan litezke. Epea 1960ra arte zabaldua 1.068 kasu lirakeke, Hego Euskal Herrikoen %20,61

SAKANA

Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutuak Nafarroan 1979tik gaur egunera arteko torturari eta beste tratu txar batzuei buruzko ikerketaren laburpen exekutiboa aurkeztu zion foru administrazioari astelehenean. Egileek adierazi dutenez, ikerketaren helburua da "motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, fenomeno horren benetako dimentsioak ezagutzea eta ulertzea". Gaineratu dutenez, "ikerketa formala irizpide zientifiko, zorrotz eta independenteetan oinarrituta eginda. Egindako lanari esker, Nafarroako biztanleengan praktika horien eraginari buruzko datu zehatzak eman daitezke. Baita egokiak lirakekeen errekonozimendu, prebentzio eta erreparazio neurriak bideratu ere. Tortura, tratu txar gizagabeak eta umiliagarriak delitu ankerrak eta iraingarriak dira, eta eskubideen urraketa larritzat jotzen dira".

Ikerlariak txostenean jaso dutenez, "salatutako kasuen kopuruak aukera ematen digu testuinguru jakin batean, batez ere terrorismoaren kontrako borrokan, erabilitako abusu garrantzitsuei buruz hitz egiteko, oso orainsu arte betikotu direnak,



Nafarroako Gobernuak eta Kriminologiaren Euskal Institutuko ordezkariak. UTZITAKOA

nahiz eta egia den, neurri txikiagoan, azken urteetan". Txostengileek gaineratu dutenez, "indarkeria ukatu egin da, iker-tu gabeko indarkeria izan da, eta, ondorioz, ez da zigortu. Horrek guztiak erakundeekiko eta justizia sistemarekiko mesfidantza eragin du biktimengan".

Datuak

1979 eta 2015 urteen artean 676 pertsonen espedienteak tramitatu dituzte. Lana bukatzean guztira 825 kasu izatea espero dute. Jasotako lekukotzen ara-

bera, kasu gehien 1979 eta 1986 urteen artean eta 1993 eta 1997 urteen artean izan zirela. Iker-tutako 532 kasuetatik tortura edo tratu txarren %81,6 Nafarroan atxilotutakoek pairatu zuten. Atxiloaldien iraupenari dagokionez, kasuen %37,83 egun edo gutxiago pasatu zituzten atxilotuta, %25,8 4-5 egun artean eta %17,3 6-10 egun artean. %54,4 21 eta 29 urte artean zituen atxilotu eta inkomunikatu zituztenean, %18,3 30 eta 39 urte artean, %11,9 18 eta 20 urte artean eta %2,5 adin txikiak ziren.

Aurretik ikerlariak 1960 eta 1978 urteen arteko epea ikertu zuten eta 215 pertsonaren espedienteak tramitatu zituzten. Bi epeak kontuan hartuz, ikertzaileek uste dute 1.068 kasu izan daitezkeela; %84 gizonezkoenak eta %16 emakumezkoenak. Nafarroako Gobernuari Sakanako datuez galdetuta, oraingoz hala-korik ezin dutela eman erantzun dute. Sortu alderdiak 149 sakan-dar, edo gehiago, direla jakina-razi izan du.

Gobernua

Herriarrekiko Harremanetarako kontseilari Ana Ollo Hualdek horrelako txosten baten balioa azpimarratu du: "goi mailako prestakuntza duen ikerketa talde batek egin du, eta azken hamarkadetan Nafarroan gertatu den giza eskubideen urraketa handia agerian uzten du. Beharrezko txosten bat, 2017an egindakoa osatzen duena, eta eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako ekintzen biktimak aitortzeko prozesu irekian laguntzeko tresna gisa balioko duena". Kontseilariak azaldu zuenez, prozesu hori Errekonozimendu eta Erreparazio Batzordearen barruan egiten ari da, 16/2019 Foru Legearen aginduz (Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoa).

Ollok gaineratu duenez, "nazioarteko erakundeek beren txostenetan adierazi dute kezkatuta daudela tortura noizbehinkako eta kasualitatezko praktika baino zerbait gehiago zelako, eta txostenak berretsi egiten du erakunde horiek behin eta berriz adierazi zutena". Testuinguru

horretan, kontseilariak gogorazi duenez, "Espainian torturak eragin ditu Auzitegi Gorenaren kondena epaiak eta Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordearen kontrako irizpenak".

Olloren ustez, "dokumentua aurrerapauso garrantzitsua da Nafarroan giza eskubideen urraketen salaketa argitzeko bidean. Ezinbestekoa da iraganari kritikoki begiratzea ahanzturarik eta oroimenik gabe, giza eskubideez ari garenean ezin baititugu pertsona batzuen eskubideak ahaztu, guztion eskubideak kontuan hartu baizik", adierazi du.

Torturatuak

Nafarroako Torturatuen Sarea elkarteak kideak "positibotzat" jo dute "Nafarroan azken hamarkadetan arrazoi politikoengatik torturatutako pertsonak zenbat izan diren argitzeko egindako ikerketa. Urteak pasa ditugu hori eskatzen. Azkenean, torturaren aitortzaren inguruan bide bat egiten hasia da; gure herrialdean erreparazioarako lehenengo urratsak egiten hasi dira".

Eta eskatu dute "torturaren errealtatea bere osotasunean" jasotzea; "bere ondorio politiko, sozial, kultural eta gizatiarrak aztertu behar dira, baita gizarte bezala erreparazioarako bideak ireki ere; eta, jakina, ez errepikatze bermeak ezarri behar dira". Gobernuari bide horretan lan egiten segitzeko eskatu diote, "Nafarroan torturaren dimentsio osoa ezagutu ahal izateko".

"AURRERAPAUZO GARRANTZITSUA DA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEN SALAKETA ARGITZEKO BIDEAN"

Ekintzaileen eskutik 26 enpresa berri sortu ziren

Cederna-Garalurrek 42 ekintzaileri laguntza eta aholkularitza eman zien joan den urtean

SAKANA

Nafar Lansarek kofinantzatuta Nafarroa Ekintzailea sareak ekintzailertza sustatzeko zerbitzua eskaintzen du. Haren parte da Cederna-Garalur elkarteak eta ibarrean ekintzaileei laguntza

eta aholkua emateaz arduratzen da. Garalurretik jakinarazi dutenez, 42 ekintzaileri eman zieten laguntza joan den urtean, 21na emakumezko eta gizonezko. Ondorioz, 26 pertsonak bere enpresa sortu eta langile autonomo

gisa alta eman zuten joan den urtean.

Garalurren Sakanako Ekintzailertza Laguntzeko Zerbitzuko arduradunek azaldu dutenez, "aurreko urtearekin alderatuta, artatutako pertsonen eta sortutako enpresen kopuruak egonkor mantendu dira". Gaineratu dutenez, "2021ean ekimen ekintzailerekin nabarmen egin zuten gora pandemiaren aurreneko urteekin alderatuta".

Garalurrek, gainera, lanean ari diren enpresei ere laguntza



Ekintzaileak institutuan. UTZITAKOA

eta aholkularitza ematen dizkie. 2022an bi urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten 20 enpresei eta bi urte baino gehiagoko antzinatasuna duten 4rekin aritu zen. Bestetik, Garalurrek ekintzailertza esperientziei buruzko tailer bat antolatu eta eman zuen Altsasu institutuan eta tutorialak ere antolatu zituen. Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko 639 900 336 (Susana) edo 619 328 264 (Oskia) telefonoetara hots egin edo sakana.admon@cederna.es e-postara idatz daiteke.

Aralarko guardetxea, gobernuaren zain

Berreraikitze konpromisoa ez du bete. Aralarko Elkarteak egindako egitasmoa joan den urtean guztiz berregin zuen. Antza, aurrean lanak emateko deialdia egingen du. Luze doa kontua eta jendea bestelako pausoak ematea aztertzen ari da

SAKANA

Guardetxea egiteko proiektua zertan den azaldu zuen Patxi Xabier Razkin Sagastibeltzak, Lakuntzako alkatea eta Aralar Elkarteko presidentea denak larunbatean Lakuntzan. "Jende asko joan zen eta egoeraren berri izatean jota gelditu zen", azaldu du alkateak. Apirillean 14 urte beteko dira Nafarroako Gobernuak guardetxea bota zuela. "Bi legegintzaldi daramatzat departamentuko arduradunekin, kontseilariekin eta presidentekin hitz egiten. Beti promesak entzuten", baina emaitzarik ez. Joan den urtekoa etsigarria egin zaio Razkini. EH Bilduren emen-



Aralarko guardetxe berriak izanen duen itxura. **UTZITAKOA**

dakin bati esker Nafarroako Gobernuaren 2022ko aurrekontuetan Aralarko guardetxea egiteko 150.000 euroko diru poltsa zegoen. "Kontu hartzaileak plegua egiteko arazoak besterik ez zituen ikusten. Eta partida gauzatu gabe gelditu da. EH Bilduk aurtengo aurrekontura pasatzea lortu du, baina Nafarroako Gobernuaren lehen fasea egiteko konpromisoa ere; aurretik hartua zuena", azaldu du alkateak.

Aldaketak proiektuan

Guardetxea bota zuen urte berean foru administrazioak elkartearen baimenik gabe 206 zuhaitz bota zituen Aralarren. Hasiera batean zur zati bat guardetxe berrian erabiltzeko zen. Baina dagoeneko ezin da, galdua baitago. Horregatik, eta 2018an egindako proiektuak egungo legedia betetzen ez zuelako, Nasuvinsa enpresa publikoko arkitekto batek Aralarko guardetxearen proiektua gutziz eraberritu du.

Bi eraikin izaten segiko du. Batean Aralarko basozainaren bulegoa, harendako gela, komuna eta turismo informaziorako bulegoa egonen dira. Guztira

81,5 metro karratuko azalera izanen du. Eraikin hori da eraikiko den lehena. Razkinek azaldu duenez, "gobernuaren asmoa da apirilean edo maiatzean deialdia egitea eta lanak udarako ematea. Lanek 465.000 euroko aurrekontua dute". Lan horiek egin ondoren, "Plazaola turismo partzuergoak eta Sakanako Garapen Agentziak elkarrekin santutegiaren atean jartzen duten turismo informazio puntua gordetxean egonen litzateke", argitu du Razkinek.

Bigarren eraikinean ostalari-tza zerbitzua, bertako produktuen salmentarako espazioa, proiektzio gela, komuna publikoak eta kudeatzailearen etxebizitza izanen dituela aurreratu du alkateak. "Baina erritmo honetan ez da sekula egingen" esan du etsituta alkateak, "14 urte dira guardetxea bota zutenetik" gogorarazi du. Aralarko Elkarteko kideek eta mendiko erabiltzaileek ez dute Nafarroako Gobernuaren aldetik emaitzarik ikusten eta etsitzen hasiak dira. Razkinek azaldu duenez, "jendea helburua lortzeko beste pauso batzuk emateko antolatzen hasi da" .

Kronologia

- **1901** Guardetxea eraiki zen.
- **2009ko apirila.** Nafarroako Gobernuak guardetxea bota zuen. Panel batean guardetxe berriaren zirriborroa jarri zuen.
- **2018** Aralarko Elkarateak bioeraikuntza proiektua aurkeztu zuen.
- **2018ko lastaila** Nafarroako Gobernuak lanak emateko deialdia egin zuen eta hutsik gelditu zen.
- **2019ko agorrilak 19** Nafarroako Gobernuak bigarren deialdia egin zuen, eta hutsik gelditu zen.
- **2022** Nafarroako aurrekontuan 150.000 euro; partida ez zen gauzatu. Guardetxearen proiektua guztiz berritu zen.
- **2023** Gobernuak 465.000 euro inbertitzeko konpromisoa hartu du.

**Etxarri
Altzariak**

ATEAK ITXIKO ditu

Bezera guztiekin
bizitako ilusioa
eskertu nahi dizuegu

ESKERRIK ASKO

LIKIDAZIO OSOA BUKATU ARTE. ZATOZ!

Trenbide auzoa | Etxarri Aranatz 948 460 021 629 99 35 57

Trafiko ezbeharren ondorioz bi hildako izan ziren

Sakanako errepide sarean hainbat trafiko istripu izan ziren joan den urtean. Sakandarrek ere izan zituzten ezbeharrak. Eta haien guztien balantzea egiterakoan, zoritxarrez, bi herritarren heriotza nabarmentzen da. Haiek bat oinezkoa zen eta bestea istripu baten ondoren larri zauritu ondoren hil zen. Emakumezkoa eta gizonezkoa. Atzera begiratzuz gero, bi sakandar hil ziren trafiko istripuetan 2021ean, 2020an bat izan zen, 2019an ez zen trafiko ezbeharrek eragindako hildakorik izan, baina 2018an eta 2017an, ordea, hiruna sakandar hil ziren errepideetan izandako istripuetan.

Zoritxarreko zerrenda hori aurtun atzo mustu genuen. Izan ere, trafiko istripua izan zuen 58 urteko irurtzundar batek. Gizonezkoak gidatzen zuen motorra bidetik atera zen eta, ezbeharren ondorioz, hil egin zen. Ezbeharra NA-240A (Iruña-Gasteiz) errepidean izan zen, Sarasatera iritsi baino lehen.

Unanun berritutako plaza mustu zuten

Mustutze ekitaldia abenduaren 24ko eguerdian egin zuten. Plaza berrituan egin zioten harrera Olentzerori egun berean. Ergoienako Udalaren Herri Berritze planaren bidez finantzaturako lana izan da

UNANU

Unenuarrak eguberri eguneko eguerdian plazan elkartu ziren. Hango paretetik ziztuzten hezetasun arazoak konpontzeko lanak mustutzea izan zen herritarrek biltzeko aitzakia. Unanuko Kontzejuko kide batek piztutako etxajarekin hasi zen ekitaldia. Ondoren, bildutako herritar guztiendako auzatea izan zen. Jan-edanen artean plazak hartu duen itxura berriaren inguruko iritziak trukatu eta paretetan jarritako lau argazki zaharren inguruan hizketatu ziren unenuarrak. Irudi horietan aspaldiko festetan aritutako dantzariak, herrian garai bateko musika



Unenuarrak elkartzeko aitzakia eman zuen plazaren mustutzeak. UTZITAKOA

taldea (Elgoibarko Umore Ona orkestina), lau gizonezko aitzakia eta herritarrek pertzekin arropa garbitzeko keinua egiten ageri dira. Kontzejutik azaldu dutenez, unenuarrek etxean ziztuzten argazki zaharretako bazuaren erreproduzioak dira jarri dituztenak, "ohiturekin segitzeko" gonbidapena eginez.

Ez da Unanun itxuraldatu den toki bakarra. Izan ere, San Pedro elizako estalopeak itxura berria du Iker Uriberen muraleri esker. Alde batetik, estalpearen luzeran frontoia irudikatu du eta han apaiza eta mutiko bat pilotan ageri dira. Ekialdeko paretan, berriz, Beriain gaineko San Donato ermita elurtuaren irudia egin du Uribek. Haren aldameneko paretan, azkenik, San Andres ermita ageri den mural bat egin du.

Ergoienako Udalaren Herri Berritze planetik Unanuko Kontzejuk 60.000 euro eskuratu zituen. Aipatu bi lanez aparte, eskola zaharren eraikineko fatxadak txukundu eta margotu dituzte. Baita, eraikinaren parean dagoen murruko zartadurak konpondu ere.



NEREA MAZKIANAN ZELAIA

Kintoak, plazan hasi eta buka

Errege egunez plazan egin zen kintoen buruzagiak aukeratzeko zozketa. Eta kinto ospakizunak plazan bertan despidituko dituzte kintoek. Haien ospakizunak otsailaren 5ean abiaraziko dituzte. Hurrengo egunean segituko dute, baina asteartean eta asteazkenean atsedean hartu ondoren, kintoek beraien ospakizunei ostegunean berrekinen diote eta larunbatera arte iraunen dute. Azken egun horretan Altsasuko kintada guztiek bat egingen dute ospakizunarekin.

Kintoen buruzagiak Nahia Imaz Perez eta Asier Solis Alen dira. Haien laguntzaileak, berriz, Maitane Agirre Martinez eta Patxi Bergera Campos (bere aitak ere ardura bera izan zuen). Larunbatean hasi ziren zortzikoa, jota eta porrusalda ikasteko. Irakasle lanetan Aitziber Etxaiz Soria, Edurne Gonzalez Somocurcio eta Nerea Mazkarian Lopez de Muniain ari dira. Azken biek estreinako aldia dute langintza horretan eta "gogoz, baina urduri" ekinen diote lanari.



Altsasuarrek ebaluazioan parte hartu zuten asteartean egindako saioaren bidez. ALTSASUKO UDALA

Berdintasun plana ebaluatzen ari dira

Ebaluazio txostena publiko egingen dute otsailaren 1ean, arratsaldean, Gure Etxea eraikinean egingen den ekitaldi batean. Ondorioak III. Altsasuko emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako planerako baliagarriak izanen dira

ALTSASU

Altsasuko Udaren Emakumearen eta Berdintasun Batzordeak 2016-2019 aldirako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako plana egin zuen, herriko II. Berdintasun Plana. Indarraldia despeditzean udala bera jabetu zen planean jasotako hainbat jarduera ez zirela egin. Hausnarketa baten ondoren, planaren indarraldia 2023ra arte luzatzea erabaki zuen. Epea despedituta, Altsasuko Udala plana ebaluatzen hasi da, non edo zertan asmatu den jakin eta non ez den asmatu jakiteko. Jasotako ondorioak III. Altsasuko Berdintasun Planaren oinarrietako batzuk izanen dira.

Bigarren planaren ebaluazio prozesua irailean abiarazi zuen Altsasuko Udalak. Hura dinamizatzeaz Elhuyar aholkularitza enpresa arduratzen ari da. Lan dokumentuak aztertzeaz aparte, Idoloa Goikoetxea Gomez teknikaria sakon elkarriketatu zuten. Ondoren, mugimendu feministako kideekin elkartu ziren. Altsasuarrak lan saio ireki batera gonbidatu zituzten asteartean. Hartan planaren indarguneak,

gabeziak eta landu beharrekoak aztertu ziren.

Udaleko teknikariak ere planaren ebaluazioan parte hartuko dute lan saio batean. Haien arloetan genero ikuspegia nola txertatzen den eta zein behar dituzten aztertuko dute. Gainera, udalekoak ez diren baina harekin harremana duten hainbat teknikari ere beraien ekarpenak egingen dituzte (Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak, Musika Eskola, Sakanako Mankomunitatekoak...). Prozesua otsailaren leian despedituko dute ebaluazio txostenaren aurkezpenarekin. Goizean teknikariek eta udal ordezkariak aztertuko dute. Eta arratsaldean, altsasuarrei aurkeztuko zaie ebaluazio txostena ekitaldi publiko batean.

Lekuko aldaketa

Zerbitzua 1992an sortu zenetik lastailaren 19ra arte Goikoetxea izan zen teknikaria. Erretiroa hartuta, Altsasuko Udalak hura ordezkatzeko oposizioa deitu zuen, eta hautaketa probak gaindituta, Aizaga Zeberio Petriati da berdintasun teknikari berria azaroaren 21z geroztik.

Altsasuko Udalak aurtengo ospakizunen egutegia zehaztu du

Altsasuko Udalak aurtengo herriko ospakizunen egutegia zehaztu du. Egutegi horretan otsaila eta lastaila bitarteko 11 ospakizun ageri dira.

Jai egutegia

- **Otsailak 5** Santa Ageda.
- **Otsailak 19** haur ihotea.
- **Otsailak 21** herri ihotea.
- **Otsailak 25** hiri ihotea.
- **Maiatzak 6-7** Alde Zaharreko festak.
- **Garagarrikak 23 eta 24** San Joan.
- **Garagarrikak 29** San Pedro.
- **Garilak 9** Erkudengo erromeria.
- **Garilak 16** Bargagainera igoera.
- **Irailak 13-17** festak.
- **Lastailak 21-22** feriak.



15
urte
zurekin
2008-2023

HARA ZER DIEN

Etxarriera, kinkurraundion hizkera!

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Nondik *Kinkurraundi*?

Etxarriera menderatu eta behar bezala erabiltzeko zintzur (*kinkur*) handia edo berezia behar ote da? Hala pentsa zitekeen besterik gabe entzunez gero etxarriarrei egokitutako izengoiti zelebrehau. Are gehiago, aipatu izengoitia erabiltzen zenean, etxarriar ia guztiak *etxarrialdun* elebakarrak zirela kontuan izaten badugu. Baina ez, ez zen ahots-korda eta ezarri berezia edo handia behar zelako etxarriera erabiltzeko. Ardo kontu zenbaitek argituko digu *kinkurraundi* izengoitiaren jatorria.

Eldu diela, eldu diela, etxarriar kinkurraundiyok!

Lizarragabengoko San Pedrotako *auzateetan* (auzo + edate) esaten omen zuten, etxarriarrek trenbidetik bertaratzen ari zirela ikustean. Gure osaba zen Anbrosio Erdozia etxarriarrek behin baino gehiagotan kontatu zidan horrela izaten zela normalean San Pedrotan Lizarragabengora iristen ari zirela etxarriarrek, baina maila literarioa eransten zion osabak pasadizoari, elizako bi ezkilek ere

lizarragabengoarren leloa errepikatzen zutela atsedenik gabe gehituz. Ezkila txikiak, soinu oso arin eta sarkorra baliaturik, *nivinoniagua-nivinoniagua* esaten omen zuen lauzpabost alditan arin-arin; eta handiak, berriz, txikiak amaitu bezain laster, soinu "solemne" edo hotsandiko eta sakonekoarekin, *taaan-po-co-paaan* / *taaan-po-co-paaan*. Bistan da erdaldun elebakarrak zirela Lizarragabengoko elizako bi ezkilak. Eta lelo horiek tartean entzuten zituztela iristen omen ziren herriko plazara, egia bada ere, gero, barre eta umore ona tarteko, zeinen gustura egoten ziren lizarragabengoarrenkin auzatean esanez amaitzen zuela pasadizoaren kontakizuna osabak.

Rafael Carasatorre etxarriarrek ere *Barranca Burunda* liburu ederrean (1993, 230 or.) ondorengo sarrera dakar, azalpena eta guzti: "Kinkurraundi: tragón; *Eldudie, eldudie Etxarriko kinkurraundiyok! (ya vienen los tragones de Etxarri). Malo era el camino que de Etxarri, por la tejería, iba derecho a Arbizu; clavado en el barro el carro de caballería veía un arbizuarra,*

cuando oye el tañido de la campanas y dice: 'Etxarriko kinkurraundiyek errepiké jotzen obeki aakizube, bei, bidiek apeintzen beño'."

Jose Agustin Garziandia unanuarrek ere (2004, 37) horrela jaso zuen emakume etxarriar batekin Iruñan topo egin eta hark esan zionean haiek gaztetan unanuarrei *zataundi* esaten zirela, unanuarrek ahotik hortzera horrela botata: "*Eta nik segidan erantzun nion esanez: -Eta Etxarriarra, kinkur aundi.*" Ohikoak ziren herri baten eta ondokoaren arteko ziria sartzeko horrelakoak.

Lizarraga Ergoieneko euskara liburuan ere (2008, 303) honelaxe dator *kinkur aundi* azpisarreraren laugarren adieran: "d) *mote de los nacidos en Etxarri*". Lizarragarrek, orduan, zertxobait gehiago mugatzen dute izengoitiaren aplikazioa, Etxarrin bertan jaiotakoiei.

Nik neronek ere, *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa* liburuan (2004, 175) azpisarreraren moduan horrela jaso nuen izenondo hau: "*Kinkurraundi* izond. Asko edan eta jaten duena *Eldu ttuk, etxarriar kinkurraundiyok!* (Heldu dituk etxarriar kinkurrandiok!). '*Tragón*'."

Eta *kinkur*-arekin segituz, honela nioen 'Ikazkintza Sakanan' artikuluan (*Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* (CEEN), 95, 2021, 241-255): "*Jauperie* (otordurako deia) aditu eta txabolaren inguruan, era zirkularrean zutika kokatutako enbor zati batzuetan jartzen ziren jatera kuadrillakideak (txondor lanetan zebiltzanak basoan), erdian elikagaiak zituztela. Ardoa edateko zahatoa baliatzen zuten eta hura dantzan erabiltzen zuten kide baten eskuetatik ondokoarenetara pasatuz etenik gabe. Ikazkin etxarriarrek ziotenaren arabera, kide bakoitzak bi «kinkurraldi» (zintzur-sagarraren kolpe) baino ezin zituen hartu zahatoa eskuetan



zuen bakoitzean eta edozergatik zintzur-sagarrak kolpea emanez gero, ahoa beterik egonen balitz bezala kontuan izaten zuten. Normalean, zintzur-sagarraren kolpea, aho osoa ardoz mukuru zegoenean ematen zuten".

Azalpenak azalpen, ez nuke nahi lerro hauek ardozaletasunaren apologiatako hartzerik inork, jakitun baikara guztiok nolako kalteak dakartzan aipatu zaletasunak neurritik kanpo praktikatzeko bada, beste zaletasun askoren moduan, baina izengoitiaren jatorriak eta auzateen mendeetako ohiturak berak ere, gure aurrekoek bizi izandakoak gureganaino iritsarazi izanak gogoratzea ez dio inori kalterik egingen. Ardo gosez bizi omen ziren garai askotan gurean eta inguruan ere eta pentsa daiteke, batzuen kasuan behintzat, ardoarekin "erromantze berezia" medio, horietatik izan zituztela momenturik gozoenak garaian garaiko bizitzaren latz haietan eta, zalantzarik txikiena gabe ere, *kinkurraundi*-en hizkera baliaturik.

Etxarriarera itzulita, esanen dut urte honetan dudala asmoa **kinkurraundion hizkera jasotzen duen liburua** kaleratzeko, XX. mendearen azken bi hamarkadetan etxarriar sortu berriek ez dutelako dagoeneko haien aurrekoen euskal hizkera soila jaso edo ikasi, indar handiz Euskal Herrian hedatzen hasia zen euskara batuarekin nahasirik baizik. Etxean *kinkurraundion* hizkera eta ikastolan eta eskolan euskara batua. Eta XXI. mende honetako lehen bi hamarkada hauetan, belaunaldi berrien

lanbide eta ohitura ezberdinen bultzadaz, etxarriarren hizkerak, ezinbestean, euskara batuaren eragina jaso du eta hamarkada gutxitan seguruenera, gainera, handiagoa izanzen da bere pisua etxarriarren komunikatzeko tresnari dagokionez. Gaitzerdi, hala ere, euskara bada ondorengo hamarkada horietan ere tresna hori.

Betikoa, orduan, ez erabat galtzeko eta behar bezala txertatu ahal izateko ezinbestean aurrera egin behar duen euskara batuan, XX. mendeko *kinkurraundion* hizkerari buruz esan edo idatzitakoak eta bere ezaugarriak bereziki deskribatu eta jasotzea izanzen da liburu honen xede nagusia. Deskribatu, jaso eta berarekin gozatzen jarraitu ahal izateko aukera hurrengo belaunaldiei zabaltzea da beste xedea.

Horretarako, lehen-lehenik, etxarriarri buruz gaur egun arte idatzi dena jaso; etxarriera hizpide izan duten lanik esanguratsuenak ere kontuan izan; ondoren etxarriararen inguruko hizkerekiko alderaketa egin; gure hizkeraren azentuarenganako hurbilketatxoarekin jarraitu; eta, azkenik, bere ezaugarrien ahalik eta deskribapenik osatuena egiten saiatuko naiz, horretarako fonetika-fonologia, morfologia eta sintaxia arloetako ezaugarri nabarmenenak erakutsi eta bere lexiko aberatsaren bildumarik osatuarena burutuz.

Akabatzeko, *kinkurraundion* hizkera nola erabiltzen dugun jakiteko modurik egokiena izan daitekeelakoan, hainbat idatzi paratuko ditut deskribapenean erakutsitako ezaugarri gehienak baliaturik.

DUELA 25 URTE...



Pilota txapeldunak

X. Sakanako pilota txapelketaren antolaketa edizio hartan Altsasuko Pilotajauku klubari egokitu zitzaion azaroaren 8an hasi eta ilbeltzaren 10ean despeditu zen. Bi hilabetez aurrebenjamin eta kadete maila arteko haur eta gazteek elkarrekin neurtu zuten frontoian zuten abilezia. Finalak Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu ziren publiko ugari lekuko zela, eta ondoren garaikurrak banatu zituzten.



Dorraon egindako araztegi berria. ARTXIBOA

Dorraoko araztegi berria lanean ari da

Nilsak urrutiko telekontrol sistema baten bidez gobernatzen du. Edozein matxura edo alarmaren berri jaso eta, gehienez, 24 orduko epean erantzunen diote. Bestalde, mantentze-lanetako bikote batek astean bitan bisitatzen du instalazioa

DORRAO
Elizalde dermioan, herritik 190 metrora, Leziza errearen eskuinaldean lehen ur beltzak jasotzen zituen Imhoff putzua zegoen. Herriaren berezko isurketek eta gaztandegiarenak haren gaitasuna mugara eraman zuten. Horregatik, Nafarroako Gobernuaren Nilsa enpresa publikoak erabaki zuen araztegi berria egitea Dorraon. Aipatutako toki berean eraiki zen araztegia joan den urteko lehen seihilekoan. Lanak Construcciones Valeriano Santesteban enpresak egin zituen 399.917,11 euroren (BEZik gabe) truke. Probaldi labur baten ondoren, araztegia udazkenean hasi zen lanean.
Azaldu bezala, aurretik, Dorraok hobi septiko bat zuen. Hura 2 metroko diametroa eta 3,5 metroko sakonera duen poliesterezko tanga bat da. Imhoff putzua bigarren mailako dekantagailua da gaur egun. Araztegi-gira bi isurbide iristen dira: ekialdekoak jasotzen du biztan-

leriaren isurketaren zatirik handiena; iparraldekoak, berriz, udalerriaren mendebaldeko muturreko hainbat etxebizitzaren isuria ere jasotzen du. Jasotako isuriak iragazki biologikoko araztegiara pasatzen dira.
Han ura garbitu ondoren, bi hezegunetara pasako da ura; bakoitzak 180 metro karratu eta 80 zentimetroko sakonera du. Urmael horiek arazketa indartzeko etapa gisa jarduten dute, eta ura atxikitzeko putzu gisa ere balio dezakete larrialdi-une jakin batzuetan. Bertan hazten den landare-espeziea gladioa da. Aurretik zeuden isurbideak bererrerabili egin dituzte, egoera onean zeudelako.

SEGUNDOKO 0,47 LITROKO BATEZ BESTEKO EMARIA TRATA DEZAKE, EGUNEAN 40 M³

Datuak
Nilsak araztegi osoagoa eta edukiera handiagokoa diseinatu du. Instalazio berria segundoko 0,47 litroko (eguneko 40 metro kubiko) eguneko batez besteko emaria tratatzeko diseinatuta dago, eta instalazioan onar daitekeen gehieneko emaria segundoko 3,28 litrokoa da. Une horretatik aurrera, instalazioak funtzionaltzeari utziko lioke. Oso kasu gutxitan gertatuko da hori, aurreikusitako batez besteko emaria baino ia zazpi aldiz handiagoa baita. Euri-jasen edo ekaitzen ondorioz ur-uholde handiak izan diren uneetan, adibidez, segundoko 1,13 litroko emaria hartu da kontuan.
Dorraoko instalaziotik kendutako lohiak araztegi handiagoko batean tratatuko dira, tamaina txikiko instalazio guztietan gertatzen den bezala, eraginkortasunagatik eta inbertsioagatik ez baitute sistema propioirik, eta hori ere ez da beharrezkoa, bolumen txikia sortzen baita.

FESTAK

- LAKUNTZA**
SAN SAASTIN
- ILBELTZAK 19 Osteguna**
17:30 Musika eskolako ikasleen kontzertua, plazan.
18:30 Piperropilak txapelketarako udaletxean utzi.
19:00 Txupinazoa, Eztanda txarangarekin.
Ondoren, txokolatada guraso elkartearen eskutik.
19:15 Piperropil txapelketa.
19:30 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
21:00 Zezensuzkoa.
00:00 Danborrada.

- ILBELTZAK 20 Ostirala**
SAN SAASTIN EGUNA
Goizean goiz, Aurora.
11:00 Meza, elizan.
12:00 San Saastin ermitara erromeria.
13:00 Auzatea Lakuntzako Pertzaren eskutik, ermitan.
18:00 Danborrada txikia, plazan.
18:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia.
19:00 Alkate dantza.
19:30 Buruhandiak. Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

- 20:00 Auzatea.
21:30 Zezensuzkoa.
23:30 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.



Sansaastinak direla eta, autobus geltokiaren aldaketa
Neguko festak ospatuko dituzte ilbeltzaren 19tik 22ra, ostegunetik igandera, lakuntzarrek eta Lakuntzako Udalak jakinarazi du ilbeltzaren 19tik 18:00etatik igandeko 17:00ak bitartean herri gunea trafikoarendako itxita egonen dela eta, ondorioz, autobus guztiak Sakanako Mankomunitatearen egoitzaren parean geldituko direla.



ARTXIBOA

LAKUNTZA Ostiralean 12:00etan San Saastin ermitara erromeria egingen dute eta ondoren, auzatea izanen da bertan, Lakuntzako Pertzaren eskutik.



Pentsio duinen aldeko bizikleta martxari Etxarri Aranatzeko harrera egiten. ARTXIBOA

Bost urte pentsio duinak aldarrikatzen

Euskal Herriko mugimenduak bere ibilbidea laburbiltzen duen aldizkaria argitaratu du. Haien aldarrikapenari soinu banda jarri dion kantua ere kalean da. Mugimenduak "borrokan jarraitzeko prestutasuna" du

SAKANA

Sakanako pentsiodunen mugimenduak astelehen eguerdiko bezala kontzentrazioa eginen du Altsasun, oraingoan Zumalakarregi plazan. Bilkura horretan pentsio duinen aldeko mugimenduen bosgarren urteurrena gogoratu eta ospatuko dute. Horretarako, bi argitalpen egin dituzte. Batetik, pentsio duinen

aldeko mugimenduaren bost urteko ibilbidea jasotzen duen aldizkaria argitaratu dute. Hartan mugimenduak egindako ibilbidea, lortutakoak, lortzeko dauden aldarrikapenak eta beste jasotzen ditu. Horrekin batera, joan den urteko pentsio duinen aldeko bizikleta martxaren berri ematen duen liburua ere argitaratu du mugimenduak. Aurre-

nekoa bi euroan eta, atzena, hamar euroan eskuratu daitezke kontzentrazioetan eta ohiko lekuetan.

Aldi berean, pentsio duinen aldeko mugimenduak bere aldarrikapenari soinu banda jarri dio. Xabier Amurizaren letrari doinua eta ahotza jarri dizkiote Modus Operandi taldeko Iñaki Ortiz de Villalbak, Amaia Zubi-

riak eta Ines Osinagak. Asteleheneko bilkuran kanta hori abestuko dute Euskal Herriko kontzentrazioetan. Sakanako mugimenduko kideendako ez da arrotza kantatzeara, kide batek prestatutako abesti ezagunen moldaketak abestu izan baitituzte azken bilkuretan. Horregatik kideek astelehen eguerdian haiekin urteurrena ospatzera gonbidatu dituzte sakandarrak: "borrokatzea merezi du, lorpenak horren lekuko dira".

Lorpenak

Mugimenduko kideen iritziz bost urteotako mobilizazioak "funtsezkoak" izan dira hainbat lorpen eskuratzeko, esaterako, 2013ko PPrene pentsioen erreformaren neurri batzuk indargabetzeko. Besteak beste, %0,25ko igoeraren ordezkariaren arabera igoerak ezartzeko, eta iraunkortasun faktorea delakoa bertan behera uzteko. Baita aurtengo pentsioak %8,5 igotzea ere.

Aldi berean, nabarmendu dute pentsio duinen aldeko mugimendua beste gizarte eragile batzuekin elkarlanean arlo ugartan aritu dela, eta, horrela, pentsiodunen mugimendua borroka horietan "erreferente bat" bilakatu dela adierazi dute. Horien artean daude osasun publikoaren eta mendekotasuna artatzeko zerbitzu publikoen aldeko mobilizazioak, banku zerbitzuaren aurrez aurreko arreta bermatzeko mozioak eta lan baldintzak hobetzeko mobilizazioak.

Aldarrikapenak

Gobernuak bizitzaren garestitzearen ondorioz egoera ekonomiko eta sozial makurra bizi duten pertsonen laguntzeko 200 euroko txekia emanen du. Mugimenduak salatu duenez, "ko-

tizazio eta kotizazio gabeko pentsio txikiak dituzten pentsiodunak neurri garrantzitsu horretatik kanpo geratu dira. Baita Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara kobratzen dutenak ere". Mugimendutik azaldu dutenez, begi onez ikusi dute hilean 1.900 euro inguru jasotzen dituzten familiek eta pertsonen txekia eskatzea, "baina hilean kopuru txikiagoak kobratzen dituzten pentsiodunek arrazoi gehiagorekin txekia kobratu beharko lukete".

Gaztigatu dutenez, "pentsioen erdia baino gehiago Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren azpitik dago (1.000 euro gordin hilean), eta emakumezko pentsiodunek pentsio txikiak jasotzen jarraitzen dute, horietako batzuk pobrezia-atalasetik gertu". Horregatik, ezarritako baldintzak betetzen dituzten pentsiodunek 200 euroko txekia eskuratzeko exijitu dute. Horrekin batera, exijitu du 2011, 2013 eta 2021eko pentsio erreformen murrizketen buelta ematea, pentsio publikoen erosteko ahalmena berreskuratzea, urte akaberako konpentsazio ordainsaria berreskuratzea eta gutxieneko pentsioa bataz beste soldataren %60an kokatzea. Aldi berean, pentsiodunen mugimenduko kideek eskatu dute "egiturazko eta egoeraren arabera ez diren neurriak hartzea, aberastasunaren bidezko banaketan oinarrituta, pertsona guztiek bizi baldintza duinak izan ditzaten".

BOST URTEOTAKO MOBILIZAZIOAK "FUNTSEZKOAK" IZAN DIRA HAINBAT LORPEN ESKURATZEKO

Osasun etxetarako larrialdietarako auto berriak

Urte berriarekin batera ibilgailuak mustu dituzte hiru osasun etxeetako langileek. Larrialdietara joateko dira

SAKANA

Aurreko hamarkadara arte osasun profesionalak norbere auto partikularrean joan behar zuen larrialdietara. Horrek, besteak beste, ezbeharren tokietara iristeko arazoak sortzen zituen,

ibilgailu partikularrek ez zutelako inolako identifikaziorik.

Osasunbideak jakinarazi duenez, 48 ibilgailu eskuratu ditu landa inguruko larrialdietan arreta emateko. Horiek mediku eta erizainek erabiltzen dituzte

hainbat beharrez erantzuteko, batez ere, trafiko-istripuei, lan-istripuei, bihotz-biriketako geldialdiei, erasoei eta 112-SOS Nafarroa zerbitzuaren bidez eskatzen diren beste batzuei. Departamentuak aurretik eskuratu zituen autoak bakoitza kolore batekoa zen eta identifikazioak ez ziren ongi ikusten. Orain eskuratu dituen guztiak txuriak dira, alde guztietan lauki txuri-gorriak ditu eta 112 zenbakia dute. Gainera, gainean larrialdietako argi urdin bana dute.



Larrialdietarako ibilgailua Etxarri Aranazko osasun etxe ondoan aparkatuta.



Ihurtunen osasun publikoaren alde egindako bilkura. ARTXIBOA

Udalek osasun publikoaren aldeko mozioa onartu dute

Behar diren langile, ekonomia, material eta antolamendu baliabideez hornitzea nahi dute

SAKANA

Sakanakoa parte den Nafarroako Osasun Publikoaren Aldeko Plataforma udalen babesa bilatu zuen haietan mozioak aurkeztuz. Udalei osasun unibertsaleko, publikoko, ekitatiboko eta kalitatezko arretaren alde egitea eskatu zieten. Jasotako erantzunen berri Iruñean gaur emanen duten prentsaurrekoan jakinaraziko dute. Ibarreko plataformatik aurreratu dutenez, Sakanako udal guztiek bat egin dute eskaera horiekin.

Onartutako mozioaren bidez udalek "Oinarrizko Osasun Laguntza eta Osasun Publikoa indartzea, behar diren langile, baliabide ekonomiko, material eta antolamenduzko hornitzea" eta horretarako "behar adinako inbertsioa egitea" eskatu dute, "Oinarrizko Osasun Laguntzak kalitatezko arreta eman dezaakeela bermatzeko". Horretarako, urte anitzeko plan batean aurrera egitea eskatu dute, bost urteko epean lehen mailako arretarako osasun aurrekontuaren %25 izan dadin. Bestetik, osasun pribatura bideratzen diren gaixoak eta harekin egiten diren itunak bertan behera uztea eskatu dute, "sistema publikoa deskapitalizatu eta negozio pribatuak indartzen baititu".

Plantillaz eta kudeaketaz

Nafarroako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak aurkeztutako mozioen bidez udalek eskatu dute "plantillak finkatzea Nafarroako Osasun Zerbitzuan plan-

tilla egonkorrak eta kalitatezko lan duina lortzeko". Horregatik, behin-behinekotasuna %8 baino txikiagoa izatea exijitu dute. Gainera, "medikuen bajak eta ordezkapenak betetzeko baliabide guztiak jartzea" nahi dute udalek. Aldi berean, nahi dute "hirugarren adinekoentzako arreta eredu publiko baterantz egindako aurrerapauso egiazgarriak, ahal dela pertsonak beren ingurunean mantentzeko, eta ez makrozentroetan, osasun-sistema publikoak arreta emango diela bermatuta". Hori iritsi bitartean, "egoitzetan kontrol publiko handiagoa eta kudeaketa gardenagoa" eskatu dute, eta zerbitzu ona lortzeko baita "plantillen lan prekarietatea desageraraztea ere".

Udalek onartutako idatziak eskatzen du "osasun mentaleko sistema birformulatzea eta prebentziora bideratzea. Sistema horrek baliabide publiko nahi-koak izan behar ditu herritarren beharrei erantzuteko, eta behar horiek areagotu egin behar dira Covid pandemiaren ondorioetarako". Gaur baliabide sozio-sanitarioetan, egoitzetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan eskaintza publikorik ez dagoela nabarmendu dute. Azkenik, idatzia bere egin duten toki erakundeek "ezinbestekotzat" jo dute osasunari buruzko Foru Lege berri bat, "gure osasun-sistema publiko gure herri eta auzoetako osasun-arretaren eta zaintzaren beharrak asetzeko prestatuta egotea bermatzeko".

Mediku premiagatik kalean kexu

Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformak deituta, Altsasuko osasun etxearen parean bilkurak egin dira azken bi asteazkenetan; hala egingen da hurrengoan ere, 12:00etan. Lehen Arretako osasun zerbitzuan behar diren langileak egotea exijitzen ari dira

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Osasunak gizartean duen garrantziaren isla dira Altsasuko osasun etxearen parean azken bi asteazkenetan egin diren kontzentrazioak. Berrehun pertsonatik gorako bilkurak izan dira. Elkarretaratze horien bidez Nafarroako Gobernuari exijitu diote Altsasuko osasun eskualdeak duen populazioari dagokion mediku kopurua izatea; hau da, sei mediku eta pediatriako plaza eta erdi. Asteazkenean lau mediku zeuden, baina haietatik bakarrik du plaza finkoa osasun eskualdean eta gainontzekoak aldian behin etortzen dira. Gainera, pediatarrik ez zegoen asteazkenean. "Haurrendako medikurik gabe bi aste daramagu behar bada", kexu azaldu zen herritar bat osasun etxearen parean.

Izan ere, Altsasuko osasun etxean segitzen dute egunero iragartzen zenbat mediku dauden egun bakoitzean: bat, bi, hiru... sekula behar diren seirak. Deitzaileek adierazi dutenez, "egoera larri hau luzatzen ari da eta plantillako langileengan ezinegonia sorrarazten du, eta premia duten herritarrengan, amorratzioa". Izan ere, hitzorduak atzeratzen zaizkie gaixoei, osasun arreta egokirik jasotzen ez duten sentipena dute, zerbait larria gertatzean ez dakite nora joan eta ospitaleko larrialdietan bukatzen dute...

Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformako kideek azaldu dutenez, "orain arte Nafarroako Gobernuak eta osasun ardura-dunek erantzun dute beraien eskutan dagoen guztia egiten ari direla, gure egoera ez dela horrenbestekoa, ez dutela ez medikurik ez erizainik aurkitzen..." Ilbeltzaren 2an Venezuelako mediku bat hasiko zela ziurtatu zieten plataformako kideei. Ez da hala izan eta gaur beste bat hasiko dela jakinarazi diete. Osa-



Bilkuran parte hartzera eta osasun karpeta bidez kexatzera deitu dute.

"GOBERNUAK GURE ESKAEREI KONPONBIDE EGOKIA ETA BEHIN BETIKOA EMATEKO OBLIGAZIOA DU"

sun zerbitzuaren egoera ez dela okertzen hasi azken bi legegintzaldietan badakite, "baina zazpi urtetan izan dute denbora egoera tamalgarri hau zuzentzeko", gatzigatu dute ibarreko plataformatik. Bestalde, ibarreko plataformako kideak osasun zerbitzuaren egoera salatzen ari den UPNri ere zuzendu zaizkio: "ez digute haien kexek balio, neurri handi batean beraiek eragin baitute egoera larri hau".

Erreklamazioak

Plataformak altsasuarrak, olaztiarrak eta ziordiarrek beraien kexua Nafarroako Gobernuari jakinaraztera gonbidatu dituzte, "gure eskubidea baita dagokiguna exijitzea eta osasun zuzendaritzak gure eskaerei konponbide egokia eta behin betikoa emateko obligazioa du". Azalpen publikoak emateko ere eskatu diete. Plata-

formako kideak herritarrek beraien osasun karpeta bidez erreklamazioa egitera gonbidatu dituzte, "jende asko egiten ari da. Gazteak ere bai". Erreklamazioetan honako testua idaztea proposatu du: "Nafarroako Gobernuari exijitzen diot berehalakoan osa dezala Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko osasun eskualdeko mediku plantilla modu iraunkorrean. Egoera onartezina da".

Halako kexak aurkezteko erreklamazio orriak badaude osasun etxe eta kontsultategietan ere, baina nortasun agiriaren fotokopia eta beste egin behar dutenez langileek, haiek lanez ez kargatzeko kexua bide elektronikoen bidez egitera animatu dute Sakanako Osasunaren Aldeko Plataformako kideek.

Parlamentuan

I-Ek galdetuta, Santos Indurain Orduña osasun kontseilariak atzo esan zuenez, "hilabete honetan hasiko den medikuak hutsik gelditu zen Lan Eskaintza Publikoko lanpostu finkoa beteko du. Eta utziko zuen beste mediku batek segituko du. Beraz, Altsasuko osasun eremuan gaur egun 5 mediku daude".

A hand in an orange sleeve holds several colorful shopping bags (blue, pink, teal, and striped) against a yellow background.

0 km
SAKANAKO
GIDA

**BEHERAPENAK
SAKANAN?**

58
DENDA
KLIK BAKARREAN

<https://guaixe.eus/gida/>

Zuk ere agertu nahi baduzu: 948 564 275 | 661 523 245 | publi@guaixe.eus

"Txapela hau lortzeko gogoa nuen; bazen garaia"

NAROA OTXOA GARMENDIA PALISTA

PALETA GOMA Sakanako Emakumezkoen Txapelketako azken bi finalak galdu eta gero, aurtun arantza kendu zuen Naroa Otxoa eta txapela preziatua janztea lortu zuen

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Abenduaren 2an XVIII. Gure Pilota Sakanako Emakumezkoen Pala Txapelketako finalak jokatu ziren Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan eta abenduaren 24an kategorია nagusiko finalen txanda izan zen. Lehen mailako finaleko txapela Sakanan geratu zen, Naroa Otxoa Garmendia etxarriarraren buruan.

Azkenean Sakanako pala Txapelketako txapelduna zara, zorionak! Eskerrik asko! Bazen garaia. Azken bi urtetan finalera sailkatu nintzen baina txapela lortzeko ateetan geratu nintzen. Aurtun, zorionez, txapela lortu dugu eta oso kontentu nago. Arantza kendu dut.

Enara Maciciorrekin osatu zenuen bikoa eta finalean Nahia Eizmendi eta Andrea Lusarreta izan zenituzten aurkari. Nolakoa izan zen partida?

Partida nahiko parekatuta hasi zen, baina partida erdian Enara eta biok aldea irekitzen hasi ginen. Enara eta biok ongi konpenstazten ginen, bikote ona egiten genuen eta Andrea Lusarretari pilota atzera bidaliz gero akatsak egiten hasten zela jabetu ginen; hortaz, bera estutzea izan zen estrategia, atzera jotzea, aldi berean Nahia Eizmendiri partidari sartzan ez uzteko. Partidari buelta eman genion eta azkenean 15 eta 25 irabaztea lortu genuen. **Gure Pilota Sakanako Emakumezkoen Pala Txapelketa etxeko txapelketa izateaz gain, txapelketa preziatua da, palista onenak lehiazten baitzarete bertan. Hori kontuan hartuta Sakanako txapelak zapore berezia al du?**

Bai. Txapela hau irabazteko gogoa nuen, eta baita nire familiak eta lagunek ere, gertu ditudan guztiak. Beste txapelketa eta kategorietako txapelak ditut, baina Sakanakoa ez nuen eta lortu izanagatik oso kontentu nago.



Naroa Otxoa, ezkerrean, Enara Maciciorrekin eta Esekiko Sandra S. Redinekin. UTZITAKOA

"FINALEAN FRONTOIA BETE-BETEA ZEGOEN. TXAPELKETA GUZTIAN FINAL HORI NUEN BURUAN"

Nafarroako txapelduna zara.

Joan zen urtean bigarren mailako Nafarroako Txapelketa irabazi nuen Lekunberriko Maidar Saralegiarekin batera. Bes-

talde Emakume Masters Cupean Nafarroako Foru Komunitateko Txapelketako 22 urtez azpiko txapela lortu nuen Olaia Eizagirrerekin batera. Eta duela gutxi Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen Senior mailan Oberenako Uxue Murillorekin jokatu nuen lehen mailako finala. Leire Artazkoz eta Paula Gorostiaga izan genituen aurkari eta ez genuen txapela lortu, baina lan handia eman genien txapel-dunei.

Sakanako Emakumezkoen Txapelketako elite mailako finalean Haizea Salanuevak eta Maidar Mendizabalek 25 eta 24 irabazi zieten Uxue Murillori eta Paula Gorostiagari luzera gogoratuko den final borrokatuan. Sakanako txapela irabazita, bere erretiroa iragarri zuen Mendizabalek.

Bai, final ikusgarria izan zen. Maidar Mendizabalek urte asko zeramatzan pala munduan eta berak esan zuen palaz despeditu nahi zuela Sakanako Pala Txapelketa jokatzek. Txapela irabazita, goian bukatu du bere ibilbidea.

Zer du Sakanako Txapelketak palisten artean horren preziatua izateko?

Gauza asko dira. Alde batetik Miguel Aristorena ibiltzen da antolatzen, Gure Pilota klubean urte luzez gure entrenatzaile izandakoa, pertsona ikaragarria, palistendako preziatua. Emakumezkoen pala sustatzeko makina bat lan egiten du. Bestetik, Sakanako Txapelketako sariak ere onak dira, eta hirugarrenik sortzen den giroa bikaina da. Txapelketa hau kategoría txikietan ere jokutzen da eta emakumezkoen palan zenbat jokutzen den erakusteko aukera ematen zaio jendeari. Neskendako pala aukera ederra dela argi uzten du txapelketa honek.

Finalean nola zegoen Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekua?

Topera beteta. Txapelketa jokatu zen hilabete guztian finalean pentsatzen egon nintzen. Eta finalera sailkatzeko eta hura bizitzeko eta irabazteko aukera izan nuen. Sekulako giroa zegoen. Hunkigarria izan zen, azkenean ilusioa pizten du. Txapela etxean dut, nire gelan txintxilik.

Sakanako finalak

Gure Pilota finalen emaitzak

Kategoria txikiak

- **Txitoak** Nerea-Olaitz 14 / Laiatz-Katixa 18
- **Tximeletak** Jare-Arhane 25 / Malen-Arhane 7
- **Kattagorriak** June C.-June L. 23 / Aizeti-Iraia 25
- **Usoak** Haizea-Onditz 21 / June O.-Julene 25
- **Pottokak** Laida-Maialen 25 / Uxue-June A. 13

Kategoria nagusia

- **Lehen maila** Nahia Eizmendi-Andrea Lusarreta 15 / Enara Macicior-Naroa Otxoa 25
- **Eliteak** Haizea Salanueva-Maidar Mendizabal 25 / Uxue Murillo-Paula Gorostiaga 24

Hemendik aurrera zein dira dituzun erronkak?

Entrenatzen segitzea eta hobetzen jarraitzea hori da nire asmo nagusia. Palaz aparte beste modalitate batzuetan ere aritzen naiz, trinketean jokatzan den paleta argentinarrean, esaterako. Jokoa oso ezberdina da, egokitu beharra dago. Paleta goman, argentinarrean eta trinketean, guztiakin jarraituko dut aurrera. Sakanako Txapelketan ariko naiz, jakina. Aurtun Lehen Mailakoa irabazita, espero dut aurtun Eliteen Mailan jokatzeko. Baina txapelketa asko ditut aurretik. Nafarroako selekzioan ere aritzea espero dut, GRABNI txapelketan eta Irekiko Txapelketan, esaterako. Pentsa dut Pilota Federazioak hautatuko nauela. Eta bestelako batzuetan ere.



Gure Pilota Emakumezkoen Sakanako Pala Txapelketako finalistak. UTZITAKOA

Irurtzungo Txapelketa, errekorrak apurtuz

FRONTENISA 64 bikotek hartu zuten parte estatuko txapelketarik jendetsuena izan den Irurtzungo Frontenis Txapelketan, estatuko frontenista onenak. Zortzi pilotalekutan jokatu zen eta Adrian Ruiz eta Jose Angel Claveria dira txapeldun handiak

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Asier Galarza irurtzundarra eskerrak jaso eta jaso dabil egunotan. Berak antolatu zuen larunbatean jokaturako VIII. Irurtzun-Arakilgo Frontenis Txapelketa, beste behin itzela izan zena. "Aurten guztira 80 bikote nituen izena emanda, baina antolakuntzagatik ezinezkoa zen eta azkenean 64 bikotera mugatu behar izan nuen. 128 pertsonak hartu dute parte. Estatuan partaide gehien izan dituen txapelketa izan da beste behin, errekorra" azaldu du Galarzak.

64 bikote horien artean 10 inguru sakandarrak ziren, "gehienak irurtzundarrak", eta gainontzekoak estatuko txoko guztietatik etorritakoak, Euskal Herriaz gain Madril, Leon, Segovia, Valladolid, Bartzelona, Zamora, Soria, Zaragoza, Huesca, Burgos... "denetatik. Eta ez hori bakarrik, espainiar estatuko frontenista onenak dira Irurtzunera etorri zirenak. Horregatik maila handiko txapelketa izan da; berdintasuna da txapelketaren ezaugarri nagusia. Hori nabarmenduko nuke. Oso pozik nago estatuko goi mailako frontenistak etorri direlako eta urtero txapelketaren maila igotzen ari delako" nabarmendu du Galarzak.

Zortzi frontoi

Partaidetza zenbaki horiek ikusita txapelketa zortzi frontoitik jokatu zen, Etxarri Aranatzan, Lakuntzan, Uhart Arakilen, Etxarrenen, Irurtzunen, Latasan, Aldatzen eta Lekunberrin. Goizeko kanporaketako partidak bertan jokatu ziren eta arratsaldeko final laurdenak, finalerdia eta final handia Irurtzungo pilotalekuan erabaki ziren, Matxainen bapo bazkaldu ondoren. "80 pertsona bildu ginen bazkaltera, hori ere beste errekor bat izan zen" dio Galarzak irribarrez. Kanpotik horrenbeste jende helduenez, Irurtzungo jatetxe eta



Irurtzungo Frontenis Txapelketako finalistak. Asier Galarza, txapeldunen erdian. UTZITAKOA

"TXAPELKETAREN MAILA URTERO IGOTZEN ARI DA. ONENAK DATOZ" ASIER GALARZA

ostatuetan ohi baino mugimendu handiagoa egon zen eta herrian giro ederra sortu zen.

Asier Galarza palista eta frontenista da eta berak ere txapelketan parte hartu zuen, Jesus Dominguez iruindarra biko zuela. Joan zen urtean hirugarren sailkatu zen Galarza, baina aurretik ezin izan zen finalerara sailkatu. "Finalerdietan erori ginen gerora txapeldunordeak izan ziren Manolo Ortizen (Andorra) eta Ruben Rojoren (Guadalajara) kontra. Alde batetik pena dut galdutako gurelako eta finalaren atarian geratu ginelako -ordu erdiko partidak ziren, eta 10 eta 6 galdutako zuten-, baina bestetik kontentua, txapelketak izandako harrera bikainarengatik eta guztia ongi aterata zela ikusita" aitortu du.

Final handia Adrian Ruizek (Bilbo) eta Jose Angel Claveriak

(Pitillas) irabazi zuten, hain zuzen ere joan zen urtean txapeldunordeak izan zirenak, Manolo Ortizi eta Ruben Rojori ordu erdiko partidak 6 eta 2 irabazita. "Kriston partida izan zen" dio Galarzak. Txapeldunak 800 euro eta txapela jaso zuten. Txapeldunordeak 400 euro eta hirugarrenak (Isra eta Fernando leondarrek) eta laugarrenak (Dani Gil eta Ivan Coro aragoiarrek) 150 euro. Horretaz gain, partaide guztiek kamiseta, eta Lacturale eta bestelako produktuen loteak jaso zituzten opari, Irurtzungo eta Arakilgo babesleek emandako laguntzari esker, eta baita egun osoko hornidura ere.

Guztiak pozik

Txapelketaren balorazioa ezin hobea da. "Jendea oso pozik dago. Hori diote, behintzat. Esker oneko mezu asko ari naiz jasotzen egunotan; askok datorren urtean berriro aritzeko gogoz daudela diote. Horrek izugarri poztzen nau eta aurrera jarraitzeko indarra ematen dit. Honen atzean lan ordu mordo dago, baina guztia ongi aterata dela ikustea handia da". Antolaketan jasotako laguntza eskertu du Galarzak.



Imanol Ramirez, eskuinean, eserita, Nafarroako selekzioaren taldekideekin. UTZITAKOA

Espainiako Txapelketatik berri onak ekarri ditu Imanol Ramirezek

SASKIBALOIA Nafarroako selekzioarekin jokatu zuen, eta 9 eta 19 postuen arteko irabazleak izan ziren

Maidar Betelu Ganboa

Altsasuko CBASK saskibaloi taldeko Imanol Ramirez Santano altsasuarrak Nafarroako selekzioarekin hartu zuen parte Espainiako Haurren Mailako Saskibaloi Txapelketan, Huelvan, ilbeltzaren 3tik 7ra.

Guztira 19 selekzio lehiatu ziren Espainiako txapelketan, eta Nafarroari taldekako fasean D multzoan aritzea egokitu zitzaion. Nafarroak Aragoiaren kontra 58 eta 49 galdutako zuten eta Gaztela eta Leonen kontra ere, 76 eta 24, baina Ceutaren kontra 74 eta 24 gailendu zen, nagusitasunez. Euren multzoko hirugarren sailkatu zirenez, hurrengo fasean 9 eta 16 postuen arteko kanporaketetarako sailkatu ziren. Hortik aurrera partida bakarrera jokatu ziren kanporaketak.

Orduan berpiztu ziren gorritxoak. Lehen arerioa Murtzia izan zuten, eta partida oso bo-

rrokatu irabaztea eta aurrera egitea lortu zuten, bi punturen gatik (61 eta 59). Segidan Cantabria izan zuten aurkari. Partida hau ere estua izan zen. Bi taldeak parez pare lehiatu ziren eta, azkenean, Nafarroak 49 eta 46 irabazi zuen. Horrela, preferente mailako finalerako sailkatu zen Nafarroa, 9 eta 19 postuen arteko finalera. Final hori Balear Uharteak taldearen kontra jokatu zuten, eta kasu honetan ere paretsu ibili ziren bi taldeak. Nafarroak tarte atera zuen eta 51 eta 46 irabazita, 9 eta 19 postuen arteko txapelduna izan zen, 1 eta 8 postuen arteko txapeldunaren atzetik txapelketako bigarrena.

Imanol Ramirezek Nafarroako selekzioarekin jokaturako sei partidak jokatu zituen. Espainiako Txapelketan aritzen den bigarren aldia da hau, 2021ean Cadizko txapelketan aritu baitzen, kasu honetan minibasket mailan.

MENDIA Altsasuko Mendigoizaleekin federatzeko aukera

Nafarroako Mendi Federazioan federatzeko aukera eskaintzen du Altsasuko Mendigoizaleak klubak, ilbeltzaren 22ra arte, astelehenean ostiralerara, 18:00etatik 20:00etara klubaren egoitzan bertan, Erkuden kaleko 8. zenbakian. Epe horretatik aurrera ostiralean egin ahal izango da, edo Altsasuko Mendigoizaleak WhatsApp bidaliz (683 316 025).

FUTBOLA Altsasu, Etxarri eta Lagun Artea lanera

Preferenten larunbatean Altsasuk Itaroa Huarte hartuko du 16:00etan eta Donezteberen kontrajokaturako Etxarri 16:00etan. Lagun Arteak Burladés hartuko du igandean 16:00etan. Emakumezkoetan Altsasuk Lagunak hartuko du igandean, 16:00etan. Erregionalean Altsasuk Bete Kozkor du aurkari larunbatean 18:45ean Lekunberrin.

CBASK-ek bere taldeak eta asmoak aurkeztu ditu

SASKIBALOIA Altsasu Saskibaloia Taldeak 147 jokalaria, 10 talde eta 20 entrenatzaile ditu 2022/2023 denboraldirako. Eskola sendotu eta helduen taldeak aurrean egotea dira helburu nagusiak, babesletza lortzearekin batera

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko CBASK saskibaloia klubak 2022/2023 denboraldiko aurkezpenera egin zuen larunbatean beteta zegoen Zelandi kiroldegian. Denboraldiko hamar taldeek -kimuak, benjamin mistoa, premini mistoa, aurreinfantil mistoa, mutilen infantila, mutilen kadetea, nesken kadetea, gizonen bigarren maila autonomikoa, emakumezkoen lehen senior maila eta gizonen bigarren maila interautonomikoa- argazkia egin zuten eta bukaeran guztiek batera argazki erraldoia atera zuten. Erraldoia, aurtan CBASK-ek guztira 147 jokalaria eta 20 entrenatzaile edo laguntzaile dituelako, taldearen dako ezinbestekoak direnak.

"Lizentzia berri asko izan ditugu aurtan, kategoria txikietan neska-mutil askok eman baitute izena. Saskibaloia Federazioak saskibaloia sustatzeko hitzaldiak eskaini zituen ikastetxeetan, eta uste dugu eragina izan duela.



Iñaki Herrero merezitako omenaldia jaso zuen. CBASK

Oso pozik gaude" azaldu du CBASK-eko Xabier Ramirez de Alda Galarzak.

CBASK-en aurtengo helburuak "saskibaloia eskola sendotzea eta egonkortzea, eta helduen senior taldeak euren kategorietan aurrean egotea da, lan ikaragarria egiten ari direlako. Bigarren maila interautonomikoko taldea ikusgarri dabil, eta baita gizonen bigarren maila autonomikoko taldea eta emakumezkoen lehen senior taldea ere" gaine-

rean egotea da, lan ikaragarria egiten ari direlako. Bigarren maila interautonomikoko taldea ikusgarri dabil, eta baita gizonen bigarren maila autonomikoko taldea eta emakumezkoen lehen senior taldea ere" gaine-

ratu zuen. Aurtan sortu da emakumezkoen senior mailako taldea, "lorpen handia, emakumeek saskibaloian jarraitzeko aukera bermatzen duelako". Talde berria da, baina lan ederra egiten ari dira Iosu Marañon eta Igor Martinezen aginduetara. "Ea ahalik eta gorenaren despiditzen duten denboraldia. Dena den, garrantzitsua da ibilbide luzeko taldea izan dadila". Bigarren maila Interautonomikoko taldeak lau finala jokatzeko "helburu polita" litzateke Ramirez de Aldaren esanetan, eta gizonen bigarren maila autonomikoko taldeak "ahalik eta lan onena egitea".

Taldearen oraina eta etorkizuna bermatzeko ezinbestekoa da baliabide egokiak izatea, eta horregatik babesle edo sponsorrak lortzea da CBASK-en beste helburu garrantzitsua, "horrela kluba sendotuko dugulako".

Iñaki Herrero omenaldia

Taldearen aurkezpenera egitearekin batera, kategoria txikietan saskibaloia erakustaldia egin zuten. Horretaz gain, CBASK klubak Iñaki Herrero jokalaria ohia omenatu zuen. "Duela bi urte utzi zuen saskibaloia eta orduan egin nahi genion omenaldia, baina pandemiarengatik bi urte generamatzen denboraldiko aurkezpenera egin gabe, eta horregatik aurtan omenatu dugu Iñaki. Bizitza guztia egin du klubean. 7 urterekin hasi zen saskibaloian, lehendabizi Altsasu Kirol Elkartearen eta

1999an, CBASK sortu zenetik, bertan jarraitu zuen 2021/2022 denboraldira arte. Ordutik taldeko babeslea da, talde interautonomikoa CBASK Narum bere fisioterapia zentroko izena baitarama, eta helduen mailako lesioak arintzeko laguntza ematen du bere zentroan. Merezitako omenaldia da, guztiz" nabarmendu du Xabier Ramirez de Aldak.

Bestalde, Iosu Marañon Emakumezkoen Lehen Senior mailako entrenatzaileak, Unai Mundiñano gizonen bigarren mailako talde interautonomikoko entrenatzaileak eta Ander Gabirondo CBASK-eko jokalaria taldekideen omenaldia jaso zuten.

Neskak bikain

Aurkezpenera ekitaldia despiditzeko Emakumezkoen Lehen Senior mailako ligako partida jokatu zen, Santa Agedako asteburuan jokatu beharreko partida aurreratu baitzen hain zuzen ere. CBASK Xabi Gorris Tattoos taldeko neskek ikusgarri aritu ziren eta partida oso borrokatuan 73 eta 70 irabazi zioten Burlada A taldeari Zelandi saskibaloia zaleen gozamenerako.

"CBASK-EN LIZENTZIA BERRI ASKO IZAN DITUGU AURTEN. OSO POZIK GAUDE"
XABIER RZ. DE ALDA

CBASK: 10 talde, 147 jokalaria eta 20 entrenatzaile





Irurtzun. Pikuxarrek eta Iratxok abenduaren 31n antolatutako Ergako irteera jendetsua izan zen. ITZIAR MATXAIN

Inoiz baino herrikoiagoak

MENDIA, ATLETISMOA, TXIRRINDULARITZA Pandemiako murrizketen ondoren bueltan izan ditugu ohiko San Silvestreak. Urte bukaerak eta hasierak mugimendu handia ekarri zuten Sakanara eta ekimenak oso parte hartzaileak izan direla nabarmendu dute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Pandemiako murrizketak alde batera utzita, ohiko San Silvestreak berreskuratu ziren Sakanan, inolako murrizketarik gabekoak. **Altsasuk** bi hitzordu hartu zituen 2022ko azken egunean. Altsasu Kirol Elkarteak antolatutako 28. Urbasako Igoera-San Silvestre Zikloturista Martxa eguerdian abiatu zen Dantzalekutik. 112 txirrindularik hartu zuten parte, eta nahiz eta proba ez lehiakorra izan, Urbasako portuko igoera kronometratu egin zen. Iker Aramendia izan zen azkarrena, Jon Zeberio-aren aurretik. Giro ederrean oroigarria jaso zuten partaideek eta salda beroa ez zen falta izan.

Arratsaldean Nafarroako San Silvestre lasterketarik betaranoena jokatu zen, 42. San Silvestrea-Mario Lopez de Uralde Memoriala. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Sakana Triatlloi Taldeak antolatu zuten

proba, eta antolatzaileen iritziz "inoiz baino herrikoiagoa" izan zen proba. Espainiako txapelduna den June Kintana Larrazako disko jaurtitzaila bakaikuarra omendu nahi izan zuen Altsasuko San Silvestre lasterketak, eta bakaikuarrak eman zion irteera proba nagusiari eta berak eman zituen bukarako sariak. Giro ederrean, 5 kilometroak egiten azkarrenak Israel Arbizu etxarriarra eta Izaskun Beunza olaztiarra izan ziren. Mikel Astiz ihabardarra eta Paula Diaz izan ziren bigarrenak eta Jabi Gasanz eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarak hirugarrenak.

Guztira 274 korrikalarik hartu zuten parte proba nagusian, eta horiei txikien proban izena eman zuten 133 neska-mutikoak gehitu behar zaizkio. "Atletismo festa ederra izan zen, jendeak oso ongi pasatu zuen eta June Kintana ere oso eskertuta zegoen.

Ezin dugu gehiago eskatu" azaldu dute Dantzalekutik.

Olaztin nobedade nagusia izan zen Sutegi klubak proba arratsaldetik eguerdira aurreratu zuela. Lehenik eta behin txikien lasterketak jokatu ziren, hiru kategorietan -7 urtera arte, 8 eta 11 urte artekoak eta 12 eta 15 urte artekoak-, eta ondoren proba nagusia jokatu zen, 16 urtetik gorakoendako, 5 km ingurukoa. Helduen proban Raul Audikana eta Izaskun Beunza olaztiarrak gailendu ziren. Arratsaldean Altsasuko proban aritu ziren eta dobletea lortu zuen Izaskunek. Bigarrenak Iñaki Garmendia eta Andrea Galbete izan ziren eta hirugarrenak Egoitz Aldaz eta Fatou.

Irurtzunen giro ederrean jokatu zen Pikuxar Euskal Txokoak antolatutako 6. Pikubestrea. "Sekulako giroa egon zen, egia esan. 150 partaide inguru izan ziren guztira, 80 neska-mutiko



Altsasu. Igandean ez zen giro, baina altsasuarrek ez zuten Bargagainen huts egin.



Lakuntza. Mendizaleek Arangunen eta Lakuntzaskoarrin despeditu zuten urtea.



Arbizu. Hogei korrikalarik parte hartu zuten Arbizuko San Silvestre herrikoian.



Sakana. Sakanako Mendizaleak taldeak urteko lehen txangoa Beriainen egin zuen, Errege Egunean. PEDRO GONZALEZ



Irurtzun. Pikubestrea oso animatua izan zen, mozorroak eta guzti. PIKUXAR



Uharte Arakil. Uharten mendian egin zuten korrika, Beriainen magalean. UTZITAKOA



Altsasu. Altsasuko San Silbestreak June Kintana disko jaurtitzaila omendu zuen.

eta 65 heldu. Eguraldia lagun, giroa bikaina izan zen. Herriko komertzio eta saltokiek lasterketa asko babesten dute eta euren ekarpen ordainezinari esker sari ugari egon ziren. Eta Lizarra kalea trafikorako itxi zenez, erdigunean lasai asko ibili zitekeen eta korrikalariak eta ikusleak gustura ibili ziren" azaldu du Javier Rekalde Pikubestreko antolatzaileetako batek.

Arbizun ere San Silvestre herrikoia ospatu zen, goizez. 20 korrikalari inguru animatu ziren parte hartzera, eta giro ederrean gustura ibili zirela aitortu dute.



Olazti. Goizez jokatu zen Olaztiko proba. SUTEGI



Altsasu. Dantzalekutik abiatu zen aurten txirrindularien San Silvestrea. N.MAZKIANAN

Gure mendiak, lepo

Gabonetan mendi irteerak antolatu ohi dira, eta aurtengo eguraldiak are jendetsuago bilakatu ditu urtea agurtzeko eta urtea ongi hasteko irteerak.

Abenduaren 31n, Pikuxarren txokolate goxoa dastatu eta gero **Ergako Trinitatera** jo zuten irurtzundarrek, giro ederrean. Pikuxarrek eta Ira-txok antolatu zuten irteera.

Han ikusi ahal izan zuten abuztuaren edo agorrilaren 29an Trinitate ermitan piztutako suteak sortutako kalteak oraindik konpondu gabe daudela. Ermita Aginagako parrokiarena da. Sutea piztu zen tokian telekomunikazio antenak daude eta, antza, halakoek tximistak erakartzen dituzte. Dirudenez, haren jabe den enpresa izanen da Ergako ermitan

sortutako kalteak konponduko dituen.

Lakuntzan Zabalarate mendi taldeak **Lakuntzaskoarrira** irteera antolatu zuen abenduaren 31ko goizean. Arangunen argazkia atera eta hamaiketako bikaina eginda, Lakuntzara jaitzi ziren urtea despeditzeko ospakizunekin jarraitzera.

Olaztiar eta altsasuar askok **Aizkorrrira** jotzeko ohitura iza-

ten dute abenduaren 31n, eta aurten ere hala egin zuten.

Ostiralean, Errege Egunean, mendizale lepo bete zen **Beriain**. Sakanako Mendizaleak urteko lehen irteera beti egun seinatu horretan egiten du, Beriainera. Gabonetako azkeneko turroiak eta cavak hartzeko probesten dute eguna.

Bukatzeko, ilbeltzaren 8an **Bargagainera** irteera egin zuen

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak. "Eguraldi kaxkarra zen, negu-negukoa, baina hala ere 12 lagunek jo genuen bertara. Ez ginen beste batzuetan bezala hamaiketako egiten eta festa giroan geratu, eguraldi horrekin igo eta berehala jaitzi baikin, baina tradizioa bete genuen eta ongi hasi genuen urtea" diote Altsasuko Mendigoizaleek.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.:

948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 13

OLAZTI Irakurketa kluba.

Bernardo Atxagaren *El hijo del acordeonista* liburuaren inguruan ariko dira irakurle taldeko kideak.
19:00etan, liburutegian.

LARUNBATA 14

OLAZTI Kontzertua.

Ione Ayerdi abeslariaren kontzertu akustikoa, Rafa Barragán eta Richar Nagore gonbidatuekin.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Kontzertua.

Pasaiako Trintxerzahar abesbatzaren kontzertua, Er kudengo Ama Abesbatzaren eskutik.
20:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI DJ saioa.

Ahikar eta Vita V disko jartzaileek osatzen dute Discodelia taldearen emanaldia: 1970, 1980 eta 1990ko hamarkadetako funk, disko eta house nahasketa.
23:00etan, Barandi tabernan.

IGANDEA 15

ETXARRI ARANATZ Kontzertu-ikuskizuna.

VIII. Zama Doinuz Arindu presoen aldeko elkartasun kontzertu-ikuskizuna: Kalakan, Nogen, ETS taldeko Iñigo Etxezarreta, Olaia Inziarte, Kerobia, Ion Maia, Lorelei eta Tatxers. Etxarri Aranazko Sarek eta presoen senide eta lagunak antolatuta.
17:00etan eta 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 16

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 17

ALTSASU Irakurketa kluba.

Alejandro Palomasen *Una madre* liburuaren inguruan ariko dira gaztelaniazko irakurle taldeko kideak.
18:00etan, lortia areto txikian.

ASTEAZKENA 18

ALTSASU Kontzentrazioa.

Sakanako Osasun Publikoaren aldeko plataformaren kontzentrazioa.
12:00etan, osasun etxearen aurrean.

ALTSASU Irakurketa kluba.

Alejandro Palomasen *Una madre* liburuaren inguruan ariko dira gaztelaniazko irakurle taldeko kideak.
18:00etan, lortia areto txikian.

OSTIRALA 20

OLAZTI DJ saioa.

Zigor DZ eta Fer Sapo musikariak osatzen dute Onki Xin taldearen emanaldia.
23:30ean, Barandi tabernan.

JAIOTZAK

- **Ian Jaunarena Urbano**, abenduaren 22an Irurtzunen
- **Maule Etxart Vegas**, abenduaren 22an Altsasun
- **Adur Lopez de Sabando Alegria**, abenduaren 28an Etxarri Aranatzen
- **Aitor Perez Gomez de Segura**, abenduaren 29an Ziordian
- **June Imaz Lizarraga**, abenduaren 30ean Dorraon
- **Irai Azanza Altxelai**, abenduaren 30ean Altsasun
- **Luka Leon Lopez de Zubiria**, abenduaren 31n Altsasun
- **Amairu Herrero Aldeano**, ilbeltzaren 1ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ALTSASU Adela Sánchez artistaren *Oraina eta atzera begirakoa* erakusketa.
2023ko urtarrilaren 1etik otsailaren 1era. Iru Bide jatetxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Todos lo hacen gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 13 19:00
Igandea 15 19:30

Ainbo: Amazoniako gerraria familiarteko filmaren emanaldia euskaraz
Igandea 15 17:00

El peor vecino del mundo gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 19 19:00
Ostirala 20 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Broker zineforum filmaren emanaldia
Igandea 15 19:00

Eo zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 19 19:00

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK**ALOKAGAI**

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko lan-gileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzen bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

HIGIEZINAK**ALOKAGAI**

Etxe bat alokatzen da Sakanan: 683 162 018.

LEHIAKETA

Nafar Ateneo nazioarteko poesia sariaren V.edizioa martxan: Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaitzen da, edizio honetarako aurkeztutako poemarioen gaia "Sori-ri-ri" hitza da (bere esanahi eta interpretazioaren zentzu zabalean). Informazio gehiago euskera@ateneonavarro.es helbidean edo 948 275 302 telefonon.

NNPEKK Nafarroa Saltsa Berdean lehiaketaren IV. edizioa martxan: Errezeta osasungarri eta jasangarriak lehiatzea da helburua. Nafarroako elikagai ekologikoak erosi, errezeta prestatu eta saria irabazi. Urtarrilaren 22an amaitzen da errezetak jasotzeko epea. Informazio gehiago cpaen@cpaen.org helbide elektronikoan edo 600 325 123 telefonon. Erosketak egiteko denden zerrenda <https://www.navarraecologica.org/eu/gastronomia/navarra-en-salsa-verde>.

OHARRAK

Mendizaleak federatzeko deia: Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Erkuden kaleko 8.zenbakian duen egoitzan egin daiteke tramitea, horretarako urtaririleko astegunetan

18:00etatik 20:00etara egongo dira harrera lanak egiten.

Crowdfunding Kanpaina Josefina Arregui Klinika berri-tzeko: Josefina Arregui Klinikaren Lagunen Elkartek diru biltzea hasi du Eguneko Zentroa berri-tzeko eta handitzeko, helburua 75.000 euro lortzea da. Diru ekarpenak www.josefinaarregui.com web orriaren bidez egin daitezke, txartel, Bizum edo kontu zenbaki baten bidez ekarpenak eginez edo Laboral Kutxa eta La Caixa banketxeetan ireki diren kon-tuetan dirua sartuz. Kanpaina 2023ko otsailaren 15era arte iraungo du. Informazio gehiago klinikaren web orrian edo 948 563 850 telefonora deituz.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandean 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Etxarri Aranazko Gaztebokoak zabalik: maiatzaren 28ra arte egonen da zabalik aste-buruetan; larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandetan 17:00etatik 20:30era. Gaztebokoan LHko 6.maila eta DBH 4.maila bitarteko gazteei zuzenduta dago eta oraindik izena emateko aukera dago. Matrikula ordaindu behar da. Informazio gehiago nahi duenak udaletxera jo dezake edo 606 239 008 telefonora hots egin dezake edota kultura@etxarriaranatz.eus helbide elektronikoan idatz dezake.

Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia: Lakuntzako Zabalarte Elkarte Aralarko Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketa bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoe-

ra eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburuarekin. Halako iru-diren bat duenak udaletxera bulego ordutegian joan daiteke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa: Telegram bidez jolas-ten den rol joko bat jarri du marxan Eneko Azedok. "Adur - Azken erroka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guztitik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak biziz. Telegram bidez esteka honetan sar zaituzke: <https://t.me/+ANOUJSCItSOM2IO>.

Arropa biltzea: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udaletxearen arkupean biltzea gun bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkartek duen egoitzara eramango dugu, biltzetaren biharamunean. Itxipiru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

Lakuntzako jendeari Gazte-txokotik: Gaztebokoak lakuntzarrei jakinarazi dienez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztebokoan erabilgarriak izan daitezkeen objektuak hara eraman ditzakete. Kiroletako materiala, mahai jolasak, eskulanetarako materiala, etab. Gazteboko Uritz kalean dago eta larunbatetan eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eraman daitezke gauzak.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

HERIOTZAK

- **Maria Itziar Agirre Gonzalez de Langarika**, apirilaren 21ean Bakaikun
- **Gregorio Zubeldia Turunbai**, abenduaren 23an Lakuntzan
- **Jose Aincia Arrese**, abenduaren 25ean Altsasun
- **Maria Teresa Garziandia Etxeberria**, abenduaren 27an Lakuntzan
- **Ildefonso Lizarraga Garziandia**, abenduaren 31n Uharte Arakilen
- **Tere Iriarte Zudaire**, abenduaren 31n Altsasun
- **Salvador Razkin Reparaz**, ilbeltzaren 2an Arbizun
- **Maria Dolores Izaguirre Mendiara**, ilbeltzaren 3an Altsasun
- **Francisco Maria Jauregi Flores**, ilbeltzaren 8an Etxarri Aranatzen

Er[✓]iti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzen | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Aukeratu zure gustoko leihoa

Erozkete Irurtzenen

ESKELA



Francisco Mari Jauregui Flores

2023ko urtarilaren 8an hil zen



Agur tio Patxi, zella ein biakiu zu ahaztutzia.
Gui biyotzetan betiko yonen za.

Harinerako zui illebak
Etxarri Aranatz

ESKELA



Francisco Maria Jauregui Flores

Besarkadat familiyandako

ZR-Mikelen kuadrille
Etxarri Aranatz

ESKELA



Salvador Razkin Reparaz

(1942/10/15 - 2023/01/02)

Munduan ez da beti jai inoiz tristura ere bai.
Baina badira mila arrazoi kontatzeko alai.
Beraz, datozen penei ez diet surik eman nahi.
Ni hiltzen naizen gauean behintzat, egizue lo lasai.

Itxekuek
Arbizu

ESKELA



Tere Iriarte Zudaire

Felix Altzelai Guaixeko zuzentzailearen ama

Laztanik samurrenak,
elkarren babesean igarotakoak



ESKELA



Tere Iriarte Zudaire

2022ko abenduaren 31n hil zen, 91 urte zituela

Nere hortzetan itzaliko den azken antzia
beste batenetan loratuko den
lehen irria izango da

Etxekoak

ESKELA



Gregorio Zubeldia Turumbay

'Emañeneko abuelo'

Iruñean hil zen 2022ko abenduaren 23an, 91 urte zituela

*Izarren hautsa bihurtu zara,
zure distira betiko gurekin.*

Eskerrik asko une hauetan gurekin egon diren guztiei.

Lakuntzan, 2023ko urtarilaren 13an

OROIGARRIA



Miguel Angel Mazkiaran San Roman

X.urteurrena
(1963/12/04 - 2013/01/05)

Familiak ez zaitu ahazten

Altsasu



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Iruztzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

 948 19 70 70

 @Grupolrache

 Grupolrache

 www.tanatoriosirache.es

Album ilustratuen lehiaketa martxan

Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, Etxepare saria 2023 antolatu dute. Helburua haurrei zuzendutako euskarazko ipuin ilustratuak sortzea da. Maiatzaren 5era arte aurkez daitezke lanak

SAKANA

Haurrendako album ilustratuak sortzea da Etxepare Sariaren xede nagusia. Nafarroako 22 toki entitatetako euskara zerbitzuek antolatzen dute, tartean Sakana-ko Mankomunitateak. Album ilustratutzat hartzen dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak eta 2023ko sariketa martxan jarri dute dagoeneko; parte hartzaileek maiatzaren 5era arte dute lanak aurkezteko epea. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna ekainaren 29a izango da.

Bakarka, hau da testua eta ilustrazioa sortzaile batek egin da, edo binaka, idazle eta ilustratzailea osatutako taldean, parte har dezakete Etxepare Sarian. Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira.

Formatuari dagokionez, librea da, baina gehienez ere 20 zentimetroko zabalera eta 21 zentimetroko altuera izango dute eta gutxienez hamabost orrialde bikoitz. Azken sei edizioetan saria jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira.

Lehiaketan parte hartzen dutenek albumaren maketa aurkeztu behar dute etxeparesaria.eus webgunearen bidez. Fitxategiak



Eider Adeletxe eta Iban Illarramendi, Etxepare Sariko irabazleak 'Kirsatsa' liburuarekin.

hogei mega baino gehiago ez izatea aholkatzen dute. Egileek nahi badute, irudi originalak bidal ditzakete, posta arrunt bidez; horrela bada, lanarekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu behar dute, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak agertu behar dute. Etxepare Saria, Leitzako udaletxea, Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880, Leizta helbidea bidali beharko dute.

Album ilustratuak sortzen trebatzeko Galtzagorri elkarteak

Biko-Teka tailerra antolatzen du, Iruñeko Udalarekin batera. Harkaitz Cano idazleak eta Aitziber Alonso ilustratzaileak gidatzen dute ikastaroa eta aurtengoa zazpigarren edizioa izanen da. Urtarrilaren 23tik 27ra egingo dute, Iruñeko Kondestable jauregian. Bertan ilustratzaile bat eta idazle bat elkartzen dituzte eta album ilustratu bat sortzeko laguntza eta aholkularitza jasotzen dituzte. Etxepare Sariko hainbat irabazle tailerretik ateratakoak dira.



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Urte berria, irakurtzeko asmo berriak?

Urte berria hasteko asmo on ugari izaten ditugunez, espero dut zaku horretan gehiago irakurtzeko eta euskaraz irakurtzeko asmo berriak izatea. Horretarako hona hemen nire bi gomendio, bi eleberri, biak oso desberdinak, baina irakurtzeko errazak eta atseginak.

Lehenengoa, **Bar Gloria** liburua da. Nerea Ibarzabal, azken bertsolari txapelketan parte hartu zuena, da idazlea. Familia batek bere bizitzan izaten duen erabateko aldaketa eta egoera berri horretara nola egokitzen joaten den kontatzen digu. Egokitze prozesu hori beraian betiko baserritik taberna batera izango da, hau da, landa eremutik herri industrial batera. Eta aldaketa horren ondorioz tabernan bertan gertatzen diren istorioak agertzen dira, hau da, bizipen bitxiak, gogorak eta edonori gerta dakizkionak. Hori guztia kontatzeko hiru protagonista ditugu: lehenengo biak familia baserritar horren alabak eta hirugarrena, etorkinen sendia den lankidea. **Bar Gloria**k gertaera oso gogorak jorratzen

ditu, besteak beste, bortxaketa, gizonkeria, garai hartako egoera grisa eta harremanak. Gomendagarria.

Petare. Liburu honetan Miren Egiguren bidaniarrak Caracaseko auzorik probreenean emandako berrogei urte baino gehiagoko bizipenak agertzen dira. Mirenek Euskal Herrira bizitzera itzuli ondoren Venezuelan bizitakoa kontatzen dio Leire Ibarguren idazleari. Urrutiko herrialde hartan horrenbeste urtetan egindako lan kooperatiboa azaltzen dio, ikastetxeak, haurtzaindegia, ura sartzeko sistema, eta zerrenda luze bat. Beti laguntzeko prest egon den emakume kementsu baten istorio erreala da eta horrek indar gehiago ematen dio kontatzen duenari, bihotza erabat hunkituz. Irakurtzean erabat hunkitzen zaitu ikusteak pertsona batek ezer ez dagoen toki txiro-txiro batean, egoera latz eta tamalgarri horiei nola egiten dien aurre eta nola lortzen dituen, etsi gabe eta borroka eginez, beharrezkoak ikusten dituen baliabideak. Munduan besteentzat lan eta borroka egiten duen jendea badagoela ohartzeko balio izan dit **Petare**k, alegia, konturatu naiz gizartean badagoela jende zintzoa eta indartsua. **Petare** izena, auzo pobre horren izena da.

'La casa de papel' telesailetik nahasketa mahaira

Ahikar Azcona Albizu aktoreak Vita V. dj-arekin Discodelia deitutako talde bat sortu du

OLAZTI

Mundu osoan Pamplona izenarekin ezaguna da Ahikar Azcona Albizu Iguzkitzako aktorea. *La Casa de Papel* Netflixeko telesail ospetsuan egiten duen papera da Pamplona.

Atrakatzaileen telesail ospetsuaren aurretik ere ezaguna zen Azcona, sare sozialetan umorezko bideoak egiten zituetoelako. Orain, Vita V. disko jartzailearekin batera Discodelia izeneko dj taldea osatu

du. Disko jartzaile bikotea urtarrilaren 14an, larunbata, 23:00etatik aurrera, Olaztiko Barandi tabernan egonen da. Sarrerek bost euro balio dute eta sarreraren prezioan edari bat ere sartzen da.

Ahikar eta Vita V. dj-ak osatzen duten Discodelia taldeak 1970ko, 1980ko eta 1990ko hamarkadetako doinuak nahasten dituzte, besteak beste, garaiko funk, disko eta house estiloetako musika egiten dute.



Sakanako bandaren ospakizuna

Abesbatzak, Deserrite, Los del Rayo eta Trasteando taldeek, Elektrokela, Txorongo eta Eztanda, momotxorroak eta erraldoiak, Etorkizuna eta Irantzu Gonzalez dantza eskolako dantzariak, Iskiza taldeko gimnastak, txistulariak, gaiteroak... Sakanako hemezortzi elkartek parte hartu zuten Haize Berriak bandaren urteurren kontzertu handian.

Nazioarteko aldizkarietan

Ekiñe Fernandez modelo altsasuarra nazioarteko aldizkarietan publikatu duten proiektu baten sormen zuzendaria izan da; proiektuan, besteak beste, Altsasuko Kristina eta Leire Gonzalez estilistak eta Quenatillo argazkilariak parte hartu dute

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Ekiñe Fernandez modelo altsasuarra sei urte daramatza modaren munduan modelo lanak egiten eta ez da lehenengo aldiz aldizkari ezagunetan agertzen dela, baina lehenengo aldiz izan da sormen proiektu batean sormen zuzendaria dela. "Ideia bat neukan buruan eta ideia hori martxan jarri nuen. Inguruan dudak jendearekin, argazkilariak, makillatzaileak eta ile apaintzaileak, hitz egiten hasi nintzen eta saioa aurrera eramateko neukan ideia komentatu nien". Sormen proiektua "pixkanaka" zuzentzen hasi zen eta taldea osatzen hasi zen. Moda argazki saio bat egitea zen ideia, gero nazioarteko aldizkarietara aurkezteko. Emaiza *Vigour*, *Moevir Paris*, *Malvie*, *Like a lion* eta *Marika Magazine* nazioarteko moda publikazioetan argitaratu dute.

Quenatillo altsasuarra, Mikel Costa, Iñaki Vicente, Sergy studio eta Johan Fernandez dira moda proiektuan parte hartu zuten argazkilariak eta Marisa Tissa eta Amaia Ocre makillajeaz eta ile apaintzeaz arduratu ziren. Modeloak Fernandez bera, Iratxe Frances eta Rocio Piñar izan ziren. "Baina ez genuen jantzirik. Iruñeko denda batekin harremanetan jarri nintzen eta hasieran baietz esan zuten, baina gero ezetz; Altsasuko denda bati esan nion eta hasieran baietz esan zidan, arazorik gabe, baina gero ez ziren nirekin harremanetan jarri. Beraz, amari galde-tu nion ea herriko dendaren bat zegoen Instagramen zegoena eta abar eta ML Moda aipatu zidan". Fernandez arropa dendara joan zen, buruan zuena azaldu zien eta MLko Kristina eta Leire Gonzalezek "dudarik gabe" baietz esan zioten.

"Egia esan, pixka bat estresantea izan zen talde oso bat zuzentzea, kontuan izanda aste bat edo bi lehenago ia proiektua bertan behera gelditu zela". Modaren mundua gustatzen zaio-lako egin du proiektu hau altsasuarra, "aukera asko ematen dizkit eta poza ematen dit jende-ari ere aukerak ematen dizkiodalako".

Argazki saioa

ML Moda dendako Gonzalez ahizpendako "esperientzia izugarri polita" izan da proiektuan parte hartzea. "Ekiñek kontatu zigun *Vogue* bezalako aldizkari batean aterako ginela eta dendan genuen produktuekin festarako lau edo bost look prestatu genituen". Hasiera batean ez zuten sinisten nazioarteko aldizkari batean atera ahalko zirenik, "baina zure buruan sinistearen eta espektatibarik gabe joatean nik uste hoberena ematen duzula", azaldu du Kristinak. "Guk ahalik eta hoberen egin genuen". Jantziak aurkezteko baldintza bakarra erromantikoak zirela zen, Fernandezek emandako argibideen arabera. "Aldizkari horietan bilatzen zuten estiloa zen".

Look-ak sortzeko orduan "oso argi" ikusi zutela azaldu dute. "Normalean horrela funtzionatzen dugu. Jantziak sortzen oso ohituta gaude eta estiloa esan zidanean kolore itzaliak, festa eta oso leuna etorri zitzaizkidan burura. Begeneuzkan horrelakoak". Kristinak moda diseinua

EKIÑE FERNANDEZEN PROIEKTUA NAZIOARTEKO BOST PUBLIKAZIOTAN ARGITARATU DUTE

ikasi du, eta biak irudi aholkularitza adituak dira. "Zerbait oso polita" egin zutela esan dute eta profesional bakoitzak bere "esentzia" jarri zuen. "Ateratzen denean ateratzen da".

Argazki saioa Fronda deitutako loradenda batean egin zuten, Iruñean, eta dena "oso erromantikoa" zela esan dute bi estilistek. "Elkar ezagutu gabe dena oso ongi joan zen, oso-oso profesionala izan zen. Ekiñerena izugarria da poseak oso ongi egiten ditu. Makillajea... Emaiza ikusten da". Errekonoizimendu "pertsonala" handia izan dela esan dute. "Zerbait oso gurea, oso handia".

Moda aldizkariak

Fernandezen proiektua nazioarteko bost moda aldizkarietan agertu da: Kanadako *Vigour*, *Moevir Paris*, *Malvie* frantziarra, *Like a lion* australiarra eta *Marika Magazine*. Modaren profesionalendako aldizkariak dira eta bertan modaren munduko artistek haien lanak bidal ditzakete argitaratzeko.

Sormen zuzendaria izatea zaila izan den arren, "ziur" berriro egingo duela esan du altsasuarra. Etorkizunean martxan jarri nahi duen beste proiektu batekin bat egiten du: "Modelo agentzia bat ireki nahi dut, baina ez betiko agentzia bat. Izan ere, guztiek 1,75 metroko altuera eta 90-60-90 neurriak dituzten emakumeak bilatzen dituzte eta nik benetako modelo bat, pertsona errealak behar ditu". Modelatzea eta posatzea ezinbestekoa dela esan du, "baina perfil anitzak behar ditugu". Miss Star Spain lehiaketan parte hartu du modelook, bigarren saria irabaziz.



Ekiñe Fernandez modelo altsasuarra Moevir Paris aldizkarian. UTZITAKOA



Leire eta Kristina Gonzalez estilistak nazioarteko aldizkarietan.

11 GALDERA



Ricardo Areta Aretak Adur Kanpo Flores pasatzen dio danborradako aginte makila. Kanpok ostegunean, hilak 19, mustuko du kargua.

"Berezia izango da, danborrada hala delako"

1990. urtean atera zen lehenengo aldiz Lakuntzako danborrada, Ricardo Areta Aretak buru zela. Ostegunean Aretak danborradako aginte makila Adur Kanpo Flores pasatzen dio, belaunaldi aldaketan. Kanpok Joxe Flores osabaren laguntza izango du

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Ricardo, nola sortu zen Lakuntzako danborrada?

Sansastinetan Migeliko Lazkanok beti esaten zidan: "Danborrada bat egin behar dugu. Atera etxean dituzun danbor zahar horiek eta su!", 1990. urtean berotu eta egitea erabaki genuen arte. Etxeko danborrak hartu, eta zine zaharrean entseatzeko hasi ginen. Aralar txirrindularien autoak bozgoragailuak zituenek, Edor Zubeldia autoan sartu, akordeoia jo, eta hori zen gure musika. Herriari buelta ematen genion.

2 Harrera izugarrikoa izan zen.

Sekulakoa. Jende askok hasieratik jarraitu du. Soinua hobetu behar zela, eta Juan Ramon Arregiren toterrenoan generadorea sartzea izan zen hurrengo pausoa. Zubi berriaren egin genuen soinu proba (kar, kar...) A ze garaiak! Lakuntzako Pertzatik proposatu ziguten danborrada elkartera eramatea. Eta 1994. urtean elkartetik atera ginen.

3 Danborrak erosi zenituzten.

Elkartekoei eskatu nien. Ilusio hori genuen, denak berdina ateratzeko. Udalari ere laguntza

eskatu nion. Danborradaren gastuak beti erdibana ordaindu izan dituzte elkartek eta udalak. 20 danborrekin hasi ginen, eta egun 30 pasa daude. Askok ere berea dute, haurrek Olentzerori danborra eskatzea ohikoa baitzen. Denborarekin danborrada plazan egiten hasi zen eta Lakuntzako Ozarki txaranga danborradan jotzen hasi zen, Haize Berriak bandako jendearen laguntzarekin. Lakuntzako abesbatzak San Saastin martxa kantatzen du.

4 Eta urte hauetan guztietan zu gidari lanetan.

Musika, entseguak eta danborradaren zuzendaritza beti nire gain egon dira, Joxe Floresek urte batzuetan aginte makila hartu zuenean izan ezik. Danborrada zuzentzeko ilusioa baitzuen. Ohorezko txanoak aurkezteko ekitaldia bien artean egiten dugu.

5 Bi urteren ondoren, bueltan da danborrada, sorpresarekin, zuzendaritza Adur Kanposen eskuetan utzi duzulako. Zergatik?

Bizitzan aurrera egin behar delako eta gazteei bidea eman behar zaielako. 77 urte beteko ditut eta ongi nago, baina nahiago dut entseguetan laguntza eman bainan gainontzeko ardurak uztea. Adur musikaria da; erraldoien konpartsan atabala jotzen du eta Eztanda txarangako kide da. Ardura berari proposatzea egokia iruditu zitzaidan. Oso arduratsua da, eta ziur nago ongi egingo duela. Konfiantza dut. Egun berezia izango da, San Saastin bezpera eta danborrada polita izaten delako.

6 Adur, beti jo izan al duzu danborradan?

Bai. Hiruzpalau urte nituenetik jada badituzte argazkiak. Jo ahal izan dudanez jo izan dut nik danborradan, urtero.

7 Danborrada gidatzeak badu bere ardura.

Aspaldi eskaini zidaten ardura hartzea. Nire buruak esaten zidan baietz, nahi nuela. Joxe Flores osaba danborradan aritzen da Ricardorekin, eta txikitatik bizi izan dudana zer baita. Baina Tuterako lana, Eztanda txaranga, Lakuntzako erraldoien konpartsa, futbola (Murchanteko atezaina da)... oso ongi pentsatu

beharra nuen, erabakiak konpromisoa dakarrelako. Baina azkenean animatu naiz.

8 Urduri al zaude?

Pixka bat, soilik azken aste-ko entseguetan egongo naizelako, aste honetan Tuteran egon bainaiz lanean. Ricardoren eta osabaren laguntza izango dut. Ricardok ia urtero moldaketaren bat egiten du, eta aurreko eskatu diot ez dezala egin, azkeneko danborradan jo genuen bezala aritzeko.

9 Lakuntzarrak animatuko al dituzu parte hartzerat?

Jakina! Gogoan dut Lakuntzako danborrada plaza zaharrean izaten zenean jende lepo egoten zela. Azken urteetan ez dira hainbeste animatu, 15 eta 25 urteko adin tarte horretan bereziki. Ni tarte horretan nago eta nire lagunak animatuko ditut.

10 Zergatik dira horren bereziak sansaastinak?

Xarma berezia dute. Ez dira udako festak bezala, abuztukoak lehengo feriak baitziren. Lakuntzako festak sansaastinak dira, San Saastin Lakuntzako patroia da, eta baselizara erromeria, piperopilak, etxeko errondak, danborrada... Nahiz eta neguan izan, niretako oso festa politak dira.

11 Nola ospatuko dituzu?

Danborradan parte hartuko dut, erraldoien konpartsa-ekin aterako naiz, eta Eztanda txarangarekin ere joko dugu. Baina parrandarako denbora ere egongo da, jakina. Aurreko ezin hobeto datoz festak, justu 19an hasten direlako, San Saastin bezperan. Berezia izango da.

URTE BERRI

irudi berri

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

fo

619 821 436
Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus

Eskatu aurrekontua konpromisoa gabe